



Ainara FLORES

Jalgi Hadi Garaipenera ekimeneko kidea → 3

2012ko martxoaren 22a | XXXII. urtea | 562. zenbakia

### Mus Txapelketa

Xorroxin, Xaloe eta Ttipi-Ttaparen alde → 23

### SALDIAS → 21

Frontoiak 30 urte bete dituelako pala txapelketa

### BAZTAN → 30

Udal Plana herritarren partehartzearekin

### SARA → 41

Sara Korrika Trail martxoaren 25ean

### KIROLA → 40

Nafarroako Herri Kirol Jolasak Igantzin

## Zer egin Belate eta Almandozko tuneletan istripuren bat gertatuko balitzaigu?

Tunel hauek dituzten segurtasun gabeziekin kezkatutik, Oronozko Suhiltzaileek eta Baztango Udalak informazio kanpaina egitea adostu dute. Hurrengo hilabeteotan emanen dute ezagutzera.

ERREPORTAJEA → 4-5




Martxoak 29

UDAL-HAUTETSI  
ETA SINDIKATUEK

## Greban parte hartzera deitu dute

→ 24



BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TALDEKAKO TXAPELKETA

### Salgai dira Leitzako finalerako sarrerak

Bardoak 2012ko finala martxoaren 31n egingen da Leitzako Pilotalekuan, arratsaldeko 5etan. Finalera ailegatu diren hiru taldeak arituko dira taula gainean, bederatzita bertsolari osotara. Eguna amaitzeko, herri afaria izanen da Leitzako eskoletan. Sarrerak [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) web gunean daude salgai, baita Iruñeko Karrikiri dendan, Etxarriko Xapatero ostatuan, Leitzako Maimurren, Elizondoko Fantxiken eta Lesakako Okindegian ere. → 28

ZOKKETAK → 35



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra

# BERA AGENDA APIRILA

Ekitaldien gaineko informazio gehiago:  
012 telefonon [www.berakoudala.net](http://www.berakoudala.net)

## TXIRRINDULARITZA: EUSKAL HERRIKO ITZULIA

**5**

ortzeguna

4. ETAPA: Eibar - Bera - Ibardin  
Apirilaren 5ean, ortzeguna, Berara  
ailegatuko da 16:15-16:30ean  
(eta Ibardinera 17:00-17:15etan).



5. ETAPA: Bera - Oñati  
Apirilaren 6an, ortziroa,  
Beratik aterako da (12:35)

**6**

ortziroa

**14**

larunbata

## VIII. BERAKO MENDI MARATOI ERDIA

17:00-18:30 - Dorsalen banaketa

8:00-9:00 - Dorsalen banaketa  
9:30 - Irteera

13:30 - Sazi banaketa eta oparien zozketa  
Argibide gehiago: [www.manttalo.com](http://www.manttalo.com)

**15**

igandea

## URREZKO AIZKORA

12:00 - Eztegora pilotalekuan  
Antolatzaileak: Berako udala

**20**

igandea

## HAUR IKUSKIZUNA: Pirritx, Parrotx eta Marimotots "Zazpikoloroa"

18:00 - Eztegora pilotalekuan  
Sarrera: 7€ - Salgai  
Errekalde ostatuan  
Arantzako Pelle Txiki Haur eskolaren alde  
Laguntzaileak: Berako Udala, Arantzako Udala eta CAN

**21**

larunbata

**7+22  
+29**

## MENDI-ITZULI GIDATUAK Berako bunkerretan harrera

Izen-ematea: 012 telefonon  
10:00 - Ibardingo Gorrin Benta  
Euskaraz eta gaztelerez - Mendiko botak eta linterna ekarri.  
Helduek 5€ eta 16 urtez beherakoek dohainik.  
Antolatzaileak: Berako Udala

**23**

ostolehena

## SOLASALDIA: Etxe zerbitzutako kontratazio berria (Etxe Zerbitzuaren Loge berria)

**GAZTELEHAZ**: Tramiteak, epemuga, Gizarte Segurantzako kuota, ordainsariak,  
betebeharrak, kalte-ordainak, etab.

19:00 - Beralandetan - Antolatzaileak: Bortziriatuko Oinarrizko Gizarte  
Zerbitzuen Mankomunitatea



# 2012 bardoak

nafarreako taldeetako bertso ekimena



## FINALA

MARTXOAREN 31n  
LEITZA PILOTALEKUAN 17:00etan  
HIRU TALDE BIDERATZI BERTSOLARI

## ONDOREN HERRI AFARIA

SARTZEN: [WWW.BERTSOHARRIARENZEA](http://WWW.BERTSOHARRIARENZEA)



Informazio gehiago: [www.berakoudala.net](http://www.berakoudala.net)

[WWW.BARDOAK.COM](http://WWW.BARDOAK.COM)

Jalgi Hadi Garaipenera gazte mugimenduak mendi martxa antolatu du Saratik Lesakara. Apirilaren 6an abiatuko da Saratik, eta biharamunean ailegatu Lesakara. Gaztelak Nafarroa

konkistatu zuenetik 500 urte bete dira aurten eta horrekin lotu nahi izan da. Euskal Herriko 7 herrialdeetako 2.000 lagun espero dira eta eskualdeko gazteei ere gonbitea luzatu zaie. In-

dependentistak Sareak apirilaren 8rako Iruñean antolaturiko Aberri Egunean parte hartzea ere deitu dute. Lesakatik autobusak izanen dira. Datu gehiago: [www.jalgihadigaraipenera.com](http://www.jalgihadigaraipenera.com).

Ainara FLORES | Jalgi Hadi Garaipenera gazte ekimeneko kide lesakarra

# «Iragana ezagututa, guri dagokigu etorkizuneko herria marraztea»

G. PIKABEA | LESAKA

**Jalgi Hadi Garaipenera gazte mugimendura sortu da berriki. Aurkeztuko zeniguke?**

Gaztelak Nafarroa konkistatu zuela 500 urte bete dira aurten eta urteurrenaren harira sortu den gazte dinamika da Jalgi Hadi Garaipenera. Orain arte, historiak anexo bat izan zela kontatu du, eta dinamika hau gazteek egiazki zer gertatu zen jakiteko dugun behar horri erantzuteko sortu da, anexo baketsurik ez zela izan adierazten duten idatziak badirelako, gertatutakoa indarrez izan zela diotenak. Dinamika horretatik formakuntza saioak eta ekimenak antolatuko dira eskualdeka. Gazte ikuspegitik eginen dira, falta izan zaigun informazio hori zergatik ez den orain arte erakutsi ikusteko. Garaitu zutenek euren historia idatzi zuten, bertzea ezkutatu. Puntu honetara nola ailegatu garen ulertuta, hemendik aitzinera guk marraztuko dugu nahi dugun herria.

**Nolakoa heldu da gazte martxa?**

Martxa ere Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren harira egingen da. Lapurditik Nafarroa Garaira egingen da, muga hauste hori irudikatuz. Ez dakit ohartzen garen, baina konkistak Iparraldetik banatzea



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ainara Flores lesakarra Jalgi Hadi Garaipenera ekimeneko kidea da.

ekarri zuen. Batzuetan nafarroi dagokigun gauza bat bailitzan ikusten da, baina konkista hark Euskal Herri osoaren zaketan eragin zuen. Independentistak Sareak deitutako Aberri Egunean parte hartuz emanen zaio bukaera martxari. Gero, hala ere, formakuntza saioekin segituko da seguruenik, dinamika indartzeko eta Euskal Herriko zazpi herrialdeetako gazteen arteko bateragunea sortzeko.

**«Iragana buruan izanik, etorkizuna marrazteko momentua iritsi da», erran zenuten martxaren aurkezpenean... Lehenagokoa jakin be-**

**KONKISTA GOGOAN**  
«Gaztelak Nafarroa konkistatu zuela 500 urte bete dira aurten eta urteurrenaren harira sortu den gazte dinamika da Jalgi Hadi Garaipenera. Orain arte, historiak anexo bat izan zela kontatu du, eta dinamika hau gazteek egiazki zer gertatu zen jakiteko dugun behar horri erantzuteko sortu da, anexo baketsurik ez zela izan adierazten duten idatziak badirelako, gertatutakoa indarrez izan zela diotenak.

har dugu oraina ulertzeko, gure sustriaiak non diok datozen ulertzeko eta herri bezala argitzeko. Jakitea beharrezkoa dugu, baina horrek ez du erran nahi lehengo erresuma eredia nahi dugunik. Jakintza da nahi duguna. Iragana ezagututa, gure Euskal Herria eta jende eredia eraiki nahi ditugu.

**Orduan Euskal Herria bat zela eta orain ere bat izateko borondatea badagoela diozue...** Hala da, duela 500 urte bazegoen eta lehenagotik ere bai. 500 urte beranduago orain ere badago eta pasatu dugun guztiarekin, hemen segitzen

dugu. Gure herria marrazten segituko dugu. Hemendik aitzinera, etorkizuna orain arte baino errazagoa izatea espero dugu. Euskal Herri independentea lortzea da helburua, baina ez edozein motatako herria, balore batzuk dituen Euskal Herri bat baizik, burujabea. Horretarako pausu tiki eta haundi aunitz behar dira eta horretan gabil-tza. Gisa honetako dinamikek gazteon nahia erakusten dute eta horretan jarraituko dugu, jendarte eredia aldatzeko eta gure herria den bezala behingoz onartua izateko. Etorkizunera begira, gure herria eraikitzeko eskubidea izan behar dugu eta indarra badago.

**Martxari begira, zer erranen zenieke inguruko gazteei?**

Dinamika polita dela eta parte hartzeko. Euskal Herriko txoko guztieta-ko jendea ezagutzeko aukera izanen da. Saran hasiko den egunean, hausnartzeko, ideiak konpartitzeko eta dene-tarako aukera izanen da, besta tiki bat egiteko ere bai. Hurrengo egunean mendia zapaltzeko aukera izanen da, jendea ezagutuz, euskal giroan... Horrelako gauzek berrindartzeko balio dute eta Euskal Herri osoan jendarte eredu berri bat nahi duten gazteak ba-direla ikusteko.

GIZARTEA → ALMANDOZKO ETA BELATEKO TUNELAK

# Egin ziren garaiko araudia bete arren, Almandoz eta Belateko tuneletan zer hobetua badagoela diote Oronozko suhiltzaileek

Trafiko haundiak arriskua areagotu egiten du

Nafarroa eta Oronozko suhiltzaileak, Baztango Udala eta Gobernua elkarlanean ari dira Belate eta Almandoz-

ko tuneletako ezbeharren aitzinean, jendeari zer egin jakinarazteko eta arriskuak nola murriztu aztertze.

## G. PIKABEA

«Kamioiak minutu bakar bat beranduago su hartu izan balu, ondorio pertsonalak aunitzez ere larriagoak izaten ahal ziren. Zorte handia izan zen, kamioia tunelaren sarreratik hurbil zegoela eta bertze hainbat faktoregatik. Izan ere, nahiz eta tunelaren segurtasun maila hobetzen ahal den eta hartutako segurtasun neurriak egokienak ez izan, suteak arrisku handia sor zezakeen, baina ez zen kalte pertsonalik izan». Halaxe dio Oronozko Parkeko suhiltzaileek landutako txostenarekin batera egin duten idatziak. Joan den uztailaren 8an Belateko tunel barranean su hartu zuen traile-rrak eragindako istripuz ari dira. Kalte handia sortu zen tunel barranean eta bi hilabete behar izan ziren konpontzeko. Geroztik eta lehena-gotik ere, gehiagotan egon dira itxita Almandoz eta Belateko tunelak, orain aste batzuk azken aldiz.

Sarritan izaten dira Almandoz eta Belateko tu-

nelak hizpide eta Oronozko suhiltzaileen kezka iturri nagusietako bat ere badira, tximinietako eta mendiko suteekin batera, Oronozko suhiltzaileek esku hartze gehienak bi tunel hauetan egiten baitituzte.

Tunelen inguruko kezka horretatik abiatuta egin dute txostena suhiltzaileek eta helburu berarekin hasi dira Nafarroako Gobernuarekin eta Baztango Udalarekin elkarlanean, «Belate eta Almandozko tuneletan sutea izatekotan, arriskuak zein diren ikusarazteko, jendeari zer egin behar duen jakinarazteko eta arriskua murrizteko zein neurri hartzen ahal diren aztertze». Horrela baieztatu digu Javier Ayarra Oronozko Suhiltzaileen Parkeko burua.

2006an onartu zen Tunelen Larrialdietako Planak dioenez, tunelaren arrisku maila tunelaren luzeraren eta pasatzen den ibilgailu kopuruaren arabera da. Bi ezaugarri horiek betetzen dituzte Almandoz eta Belateko tunelek.

## SEGURTASUN NEURRIAK

«Almandoz eta Belateko tunelek egin ziren garaiko araudia betetzen dute, baina gaur egun eginen balira, segurtasun neurri osagarri batzuk beharko lituzkete»

Javier AYARRA  
Oronozko Suhiltzaileen  
Parkeko burua

## DATUA

# 7.968

IBILGAILU  
pasatzen dira egunean  
N-121A errepidetik,  
horietatik %28 astunak.

2009an Sunbilla eta Behobia arteko errepidea moldatu zenetik, egunero 1.400 kamioi pasatzen, 2.500 kamioi pasatzera igaro da N-121A errepidea. Suhiltzaileek utzitako datuen arabera, gaur egun, 7.968 ibilgailu pasatzen dira egu-



nero tuneletatik, horietatik %28 ibilgailu astunak. Aipatzekoa da hildakoak utzi dituzten tuneletako suteen %100ean kamioiak izan direla protagonistak.

## ARAZOA KONPONTZEKO ELKARLANA

Urteen joanean, gero eta tunel luzeagoak egin dira eta horrekin, aldi berean, istripu gehiago izan dira. Institutuzioek neurri berriak hartu behar izan dituzte eta horren ondorio da Nafarroako Gobernuaren 2006ko maiatzaren 26ko 635 Errege Dekretua, 2004ko Europako Zuzendarauan oinarritua, tunelen guttieneko segurtasun baldintzak jasotzen dituena. Araudi horren arabera, bi norantzako tunela baldin bada, mila metro baino gehiago baditu eta egunean mila ibilgailu baino gehiago pasatzen badira, bertze hodi bat behar da trafiko altuagatik, 400 metroka larrialdietako irteerak behar dira, aireztapen sistema egokia ere bai, eta larrialdi zerbitzuetarako irra-

tikomunikazio sistema eta erabiltzaileendako irrati bidezko larrialdietarako mezularitza ere bai, bertzeak bertze. Almandoz eta Belateko tunelak, ordea, araudi horiek baino lehenago-koak dira eta garai hartan indarrean zegoen araudia betetzen dute.

Orduko araudiarekin bat etorri arren, suhiltzaileen irudiko, bi tunelek badituzte hobetzen ahal diren zenbait alderdi. «Oronozko erreskate zerbitzuek ezin dutela garaiz erantzun», gogoratu du Ayarrak, denbora behar dutelako harat ailegatze eta beraz, «tunelaren daudenak ezin dira garaiz artatuak izan». Gaineratu du, «tunel horiek gaur egun eginen balira, segurtasun neurri osagarri batzuk beharko lituzketeela».

Garaiz ez artatzeaz beruz, aholku bat eman die Ayarrak erabiltzaileei: «sutea izan bada, tunel barranean dagoen jendeak ezin du suhiltzaileak noiz erreskatatu esperoan egon. Denek atara behar duete kanpora, autoebakua-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Almandoz eta Belateko tuneletan zerbait gertatuz gero, suhiltzaileek 15-20 minutu behar dituzte bertara ailegatzeko, beti ere, abisua jaso dutenean Oronozko parkean baldin badaude.

zioa egin behar da, eta autoebakuazioa instalazioak erraztutakoa izan behar da».

Araudiak dio tunelek larrialdietako irteerak behar dituztela eta Almandoz eta Belatekoen kasuan, bi aldeetara dauden irteerak dira larrialdietakoak. «Baina larrialdietako irteera batera joateak ez du ziurtatzen kerik egonen ez denik. Litekeena da erabiltzaileak alde batera abiatu eta kontrol zentrotik kea erabiltzailea doan tokira bideratzea. Instalazioak argi erakutsi behar du erabiltzaileak zein aldetara jo behar duen. Horretarako instalazioak kea ebakutzeko estudioa beharko luke, baita alerta sistema eta argizatutako seinalizazioa ere. Horiek dira proposatu ditugun hobekuntzak», dio Ayarrak.

Neurri horiez gain, Oronozko suhiltzaileen buruak garrantzitsua ikusten du jendeari informazioa ematea, «arriskua dagoenean zein neurri hartu behar duen jakiteko». Eta horixe da, hain zuzen, Baztango

Udalarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lanean hastearren arrazoietakoa bat. «Nafarroako Suhiltzaileak, Oronozkoak eta Baztango Udala elkarlanean ari gara. Nafarroako Suhiltzaileek Gobernuo Herri Lan eta Barne Departamentuekin landuko dute gaia, organu kompetenteekin, eta Oronozko suhiltzaileak eta Baztango Udalak kanpaina informatibo egitea adostu dugu. Prebentzio kanpaina baten barne izanen litzateke. Oronozko suhiltzaileak instalaziorako hobekuntza neurriak ere proposatuko ditugu», adierazi digu Oronozko suhiltzaileen buruak. Nafarroako Gobernuan ere berriak dira gai honetan, orain arte UPNren ardura izan delako eta orain PSNrena delako. «Arriskuen eta neurri zuzentzaileen inguruan txostena egiteko eskatu digute suhiltzaileoi eta horretan ari gara».

Denborarekin, orain Baztango Udalarekin hasitako elkarlana, gainerrakoa herrietara ere zabaltu nahi dute.

## JAVIER AYARRA, ORONOZKO SUHILTZAILEEN PARKEKO BURUA

### «Jendeak garbi izan behar du norbere kasa atera behar duela tuneletik, eta ezin duela suhiltzaileen esperoan egon»

«Almandoz eta Belateko tuneletan ezbeharren bat gertatuz gero, hurbilen gauden suhiltzaileek, hau da, Oronozkoek, guttienez 15-20 minutu behar ditugu parkeetik atera eta harat ailegatzeko eta 22-23 minututan egon gaitzake operatibo. Hori, beti ere, parkean baldin bagaude, gerta baitaiteke bertze nonbaiteko sute bat itzaltzen aritzea». Javier Ayarra Oronozko parkeko buruaren hitzak dira. Hori horrela izanda, Ayarrak argitu nahi izan du, «jendeak ezin duela suhiltzaileek atera bitarte esperoan egon. Jendeak garbi izan behar du norbere kasa atera atera behar duela tuneletik eta suhiltzaileak ez direla denbora luzez ailegatu».

Jendeak horren berri izateaz gain, Almandoz eta Belateko tunelek zer hobetua badutelakoan daude suhiltzaileak. Ayarraren arabera, «tunelen artean, bi hodi izatea da instalaziorik seguruena, bat norantza baterako eta bertzea kontrako norantzarako. Hartara, batean arazoren bat egonez gero, bertzea libre geldituko litzateke ebakuaziorako. Bigarren aukerarik seguruena, bi norantzetarako tunela bakarra denean, ebakuazio galeria bat egitea da, hau da, tunel tikiago bat pertsonendako. Eta hirugarren aukera instalazio barrenean hobekuntzak egitea da». Adibide hauek aipatu dizkigu Ayarrak:

- **Tunelera sartu aitzinetik geralekua:** geraleku horretan ibilgailu arrakutsuak –kamioiak– geldiaraziko lirateke. Hor arku termikoa edo temperatura neur-gailua kokatuta, kamioia gehiegi be-

rotua dagoen ala ez eta arazoak sor ditzakeen ala ez ikusiko litzateke. Baiezkoa bada, hozten utzi, eta bitartean informazioa jasoko luke: abiadura, segurtasun tartea, sutearekin zer egin...

- **80 kilometro orduko gehieneko abiadura:** erreboluzio tikiagoan motorrari guttiago exijitzen zaio.

- **100 metroko segurtasun tartea:** segurtasun tartea mantentzen duenak arrisku tikiagoa du eta tuneletik ateratzeko denbora gehiago. Ibilgailuak bat bertzearengandik hurbilegi baldin badaoaz, bati kea hasten bazaio, inork ez du atzera egiterik, ibilgailu bat baino gehiago erre daitezke eta su karga haundiagoa sortu.

- **Sutearen kasuan:** norbere ibilgailuak su hartu badu, itzaltzen ahal bada itzali, eta ezin bada, utzi ibilgailua eta jendea tuneletik ateratzeko erran.

- **Argizatutako seinaleak:** jendeak nora joan jakin dezan, argizatutako seinaleen bidez kanporako bidea markatzea komeni litzateke. Kea alde batera bideratzen bada, jendeak jakin dezala bertze aldera joan behar duela.

- **Mezu garbiak:** tunel barrenean daudenek zer egin jakiteko mezu argiak.

- **Aireztapena:** sutea baldin badago, aireztapena modu progresiboan eta poliki-poliki aktibatu behar da, gehiegizko bentilazioak sua indartu egiten baitu. Aldi berean, bentilazio egokiarekin, kea ahalik eta denbora gehienean tunelaren goiko zatian mantendu behar da, jendeak tuneletik ateratzeko denbora nahikoa izan dezan.



Jon Zangitu eta Javier Ayarra, Oronozko parkeko suhiltzaileak.



**Nire txanda**  
Iñaki ALUSTIZA

## Txooootx!!

Urtea hastearrekin batera, txanpain kopa eskutan dugula, zeharka begiratzen diogu txotx denboraldiari. Negu sasoiaren sagardoa kupelatik dastatzeko aukera ematen digute sagardotegi aunitz eta zenbait baserri. Bertako fruitua den sagarratik abiatuz, edari zoragarria den sagardoa lortuz. Sagardotegian sortzen den giroak, ez du parekorik. Kupela aurrean topatzen duzuna, segidan bilakatzen duzu betiko lagun, bertotako kide eta kantuan aritzeko adiskide. Udaberriaren sartu eta eguzki ederrarekin batera... baratzeak. Ongi etorriak! Baina txotx denboraldiari atsedean ematen diotenak. Sagardotegi askotan berriz sagastiak zainbatzen, kupelak garbitzen eta sagardoa botiletan banatzen. Sagardoa berriz, urte osoko lagun. Ardo gorri Nafarra eta sagardo berde Euskal Herritarra, Txooootx!!

«Kupela aurrean topatzen duzuna, segidan bilakatzen duzu betiko lagun, bertotako kide eta kantuan aritzeko adiskide»

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## M-29 eta lanpostuak

Grabak ez duela lanposturik sortuko diote eta seguru egia dela! Ez Lan Erreformak bezala: 33 urte bitarteko gazteek presakuntza-kontratu dotorea izanen dute, hilean 481 euroren truke. Hori bai lanpostuak sortzea! Bitartean, karguak utzi eta urtetan soldata ederrak jasotzen segitzen duten politiko horiek bizi osorako lanpostu finkoak aspergarriak direla diote. Ze majoak!

### Nabarmentzekoak



Fran AGARA  
Larun Haizpeko presidentea

Laugarren zuzendaritza batzordea osatu du Berako Merkatarien, Ostalarien eta Zerbitzu Enpresen Elkarteak. Agara Kirolak dendako Fran Agara da presidente berria.



Gema MIGELTORENA  
Mankomunitateen saria

Urtarrilean eta otsailean ez zen saridunik agertu Hiri-Hondakinen Mankomunitateek banatutako egutegien zenbakiekin egindako zozketan. Martxokoa lesakarrari egokitu zitzaion.



Xabi IBARGARAI  
Erratzuko palista

Munduko buruz buruko pala txapelketako finalerdietan sartu da erratzuarra lehen aldiz. Horretarako, lau aldiz txapeldun izan den Gaubeka kanporatu zuen uste-kabea Elizondon.

Atzera begira → 2003.03.20 / TTIPI-TTAPA 346. zbk



### Euskaldunon Egunkaria itxiarazi zuten duela 9 urte

«Egunkariaren 13 urteko lana egun batez arrazoirik gabe kakaztu egin dute». Hala zioen Irene Arrizurieta, Euskaldunon Egunkariako kazetari leitzarrak, egunkaria epailearen aginduz itxiarazi eta zenbait lankide atxilotu ondotik. Ireneren ustez, «Madrileko Gobernuak iritzi publikoaren aurrean euskal gizarteari min emateko, dena ETArekin nahasi besterik ez du egin behar, dena zaku berean sartu eta kittito!». Berria agertu bitartean karrikaratu zen Egunero egunkarian ari zen leitzarra halabeharrez.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

#### 2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....38€	Europa	.....56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....32€
Ipar Euskal Herria	.....56€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Aberastu nahi

Pello APEZETXEA

**M**unduan badira pobreak eta aberatsak. Pobreak aunitzez gehiago dira, eta oraindik ere gehiagotzen. Ez, ordea, kopuruari dagokionez soilik, desberdintasun neurriari begira ere bai. Zera, alegia, batzuen aberastasunak gero eta handiagoak dira, pobreenak, berriz, urriagoak. Bertze modura erranez, aberatsen diruak eta ondasunak ugaritzen doaz, pobreenak, berriz, gutitzen. Badira hilean bi milioi eta gehiago irabazten (?) dutenak, eskuratzen dutenak behinik behin. Eta badira hilabetea 30 eurokin hornitu beharrean daudenak.

Gu *lehen mundu* deitzen zaionekoak gara, aberatsen mundukoak. Hemen ere, ordea, bada pobre franko. Euskal Herriko jendearen %20a pobreen mailan dago, eta Europa guztian antzera. Egia da hemengo pobreziaz mintzatzean, ez garela eguneko euro bat eskuratzen dutenez ari, nahiz eta idorperik eta jatekorik gabekoak badiren. Dena den, hemen pobrezia-eremuak jotzen dira hilean 800 euro gainditzen ez dituztenak, hileko gastu normalak hornitzeko nekez ibiltzen direnak. Gaur egun, ordea, ez ditugu gogoratu gabe uzten ahal lan gabezia daudenak, eta etxearen mailegua ezin ordainduz dabilzanak. Pobrezia hedatu egin da gure artean eta inguruan.

Denok dakigun gauza da orain arte errandakoa, jende guztiok ikusten duguna, edota gutienez aditu bai. Batzuentzat ezaguna ez dena, edo ikusten ez duguna behintzat, zergatia da. Zergatik dira pobreak eta aberatsak?

Zerk eragiten du batzuen eta bertzeen arteko hainbertzeko ezberdintasuna? Batzuen pilatu nahiak. Batzuen pilatzeak, bertzeen eskastea baitakar. Munduko ondasunak mugatuak direnez gero, ezin du baikoitzak neurririk gabe bereganatu, ezin du baikoitzak neurririk gabe gastatu. Egiten den edo saltzen denari ez zaio neurri gabeko prezioa paratzen ahal, erosten denari ere prezio justua jarri behar zaion bezala, ez handiegia, ezta murriztegia ere. Emaztekiaren lana gizasemearena bezainbat ordaindu behar da, lan klase eta kopuru berdina baldin bada. Egun hauetan gogoratzen ari diren arabera, baina, emakumeak %16 gutiago kobratzen omen du, lan berdina eta denbora berdinean egina izanagatik.

«Ezagutzen edo ikusten ez duguna zergatia da. Zergatik dira pobreak eta aberatsak? Zer eragiten du batzuen eta bertzeen arteko hainbertzeko ezberdintasuna? Batzuen pilatu nahiak. Batzuen pilatzeak, bertzeen eskastea baitakar»

### Ametsgaizton antzokia

Joseba URKIOLA

**A**metz hitza azkenaldian askotan entzun beharrean izan gara. Futbola dela tarteko batzuek, errealtateetik kanpo bizitzea gustuko dutelako besteek, edota esna baino hobe delako lo egotea eta, ahal bada, ilusioaren eta nahiak egia bihurtuko diren laino multzo ukiezin horretan erabat hondoratu. Baina egungo errealtateak, badirudi onetik baino gehiago daukala gaiztotik, eta ez da erraza egunerokoari aurre egitea. Zer gara, nor ginen eta nora goaz? Horiexek orrialde hau idazten eta irakurtzen ari denak azkenaldion askotan barruntatu dituen erantzun nekezeko galdera batzuk. Eguzkia zeruan egon arren edota patua une askoan aldeko edukiagatik, inguruak erabat hunkituta gauzkala ezin ukatu. Norbera pozik eta gustura egoteko, ondokoaren irria ere beharrezkoa baita, eta azkenaldian, txiro samar gaude zentzu horretan ere. Boteredunak inoiz baino boteretsuago eta bankuak lapurren teknikan doktoratzen ari diren garaia da hau. Seguru historian zehar gutxiagorekin gatazka galantak hasiak izango zirela honezkero, baina orain mingainari zapatak kendu eta ixilik egotea tokatzen da. Hori da modako joera. Eguneroko egunkariak ikusi besterik ez dago zerbaitek huts egiten duela jakiteko. Printzeak epaitegietan, alkateak kartzeletan, zientzialariak aireportuetan, eta INEMeko ilara geroz eta potoloago eta mardulago. Horixe izango da gizentzen ari den gauza bakarrenetakoa. Errusiar mendia dirudi; geroz eta arriskutsuago, beldurgarriago eta azkarrago hedatzen ari dena. Hemen gainera besteekin alderatuta, sartzea oso erraza da. Ateratzen dira komeriak.

Txontxongilo aspalditik gara, baina behin duintasuna jokoan jartzen denean, erne horrekin. Desjabetze prozesuak horren adibide. Espainiar Estatuan milaka etxe mamuz josita daude, hutsik eta hautsa nabarmen hartzen, inoiz joango ez diren bizilagunen zain. Misteriozko kaiola dira. Jendea gorputz, arima eta izerdi hotzarekin urteetan eraikitzen egon den habiatxoak hutsik ari dira geratzen. Baina kontua ez da etxea uzten duteanean amaitzen. Behartuta alde egiteaz gain, ordaintzen jarraitu behar baitu. Seguru hori bizi dutenentzat, erre kara euroak bota edo su emateak balio handiagoa duela. Behintzat, berak egingo du eta inork agindu gabe.

Bitartean, agintari berriak paperak aldatu eta aldatu dabilta. Lan Erreforma berria, 2012 iluna argituko duen ustezko zorianaren formula. Hala saldu digute. Etxeekin gertatzen den moduan, hemen ere urteetan eginiko eskaera, gurari eta desio labora guztiak pikutara. Merkelek ze soinu jo, Moncloak hori dantzatuko du. Hobe esanda, dantzazter behartuko gaitu; hori bai, ahaztu zapata eroso edo soineko egokiak. Hankak biluzik daude eta zoru deserosoa da gure eszenatokia. Enpresariak eskuak iguritzen, langileak "gustura" eta burua makurtuta lana dagoen bitartean, sindikatuak egoera egoki ezin asimilatu ezinik eta urteetan eraikitako lan guztia ezerezean amildua.

Hau guztia entzunda, ez al da harriztekoa ametsetan bizi nahi izatea? Eguneroko loaldia handitzeko gogoia edukitzea? Ez dakit nork idatzi duen azken urteotako patua, baina seguru nobela beltza oso gustuko zuela eta dagoen lekuan gozatzen ariko dela. Teloia noiz itxiko den zain nago, baina uste dut oraindik ere eszena asko geratzen direla antzoki honetan interpretatzeko.

## Irakurleak mintzo

Martxoan  
«matxo»Izaskun SAGASTIBELTZA  
GOLDARAZENA (Leitza)

Zorionez, urte mordoxka daramazkit lanean, han, hor eta hemen, inongo arazorik gabe heldu-gazte zein gizon-emakumeekin.

Egia da gizarte honetan inposatu diguten gauza askotariko asko ditugula on eta txar. Baina berdintasunaz ari garenean hitzegiten, hitzegin dezagun denetarik. Soldata, lana, eskubideak... eta ez interesatzen zaizkigun gauzaz bakarrik.

Egia da, gure birramonek ikusitakoa gure aiton-amonei txertatu zietela; beraiek gurasoei eta hauek guri. Baina guk ez dugu zertaz berdin egin behar ondorengoekin, bizitza eta egoerak asko aldatu baitira.

Ama etxeko lanean, aita industriara dirua ekartzera, semea segara, alorrera eta alaba berri sukaldara. Zoritxarrez familiaren heziketa ama gaixoak egin behar izan ohi zuen, aita kanpora atera behar zuelakoan.

Salagarria da bene-tan, urte askotan gizonak bezala lan egin duten emakume askok, soldata baxuagoa irabazi izandu zutela. Baina zenbat emakume daude berdintasuna eskatzen dutenak, 'biktismoaz' baliatuz «hori neri ez dagokit, ez dut gogorik, hori gizonen lana da» horrelakoak esan

eta ezer egin ez eta gizona ezinean bi makinetan lanean aritu eta emakumea pottorroa ukituz geratu denean.

Esanera bada eta errealitatea gainera; lanean 2 emakume elkarrekin ongi moldatzen direla baina 3 elkartzetan, elkar jaten direla. Emakume askori aditzen zaie hori. Zergatik?

Emakume abertzaleen topaketa egin omen da. Abertzale ez direnak, ezer aportatzeko ez balute bezala. Akaso zuek baino gehio! Hemen ere desberdintasuna nork markatzen du.

Kustodiaz ari garenean, emakumea da pastelaren 3/4arekin geratzen dena eta gainera muturrarekin. Zergatik?

Emakume bezala lotsa sentitzen dut. Eta ez dut uste exenplo ona ematen dutenik horrelako emakume *matxo*-rroak duten jarrekin. Ausardia duten emakumeak behar dira berdintasuna lortzeko, igeltsarritza, zurgintza... lanean aritzeko eta ez ordu erdi ispiluaren aurrean nola atera behar naizen pentsatzen egoten diren eta hatzazkallak puskatzeko beldurra duten horiekin.

Txistorra prexitutako arraultzekin jatera noa, Mikeletetan.



## Bota bertsoa

Asier GARRAUS (Malerrekako bertso eskola) • Neurria: Zortziko haundia

## Malerreka kantuz

Burujabetzak eskeini digu garaipen ikurtzat hartuz euskalerriko ohitura ugari mende luzetan mantenduz gure kultura eraman dugu lau haizeetara zabalduz eta historia betetzen dugu jende aurrean kantatuz.

Oihu bakarrez milaka ahots dugun herria gu gara euskalerriko ohitura zahar bat kalera irten behar da askatasunez ozen kantatuz maitatzen dugun euskara egun hauetan animatu ta atera denok plazara.

Emakumeon  
Eguna

Ainara MAIA

*Nik soilik emakume bat naiz adjektiborik gabe, beharbada tuntuna, ergela, inteligentea, lotsatia, ona, gaiztoa... eta halako atributuak ditut eta halakoekin gizonezkoek euren ezintasuna adierazten didate maitasuna soilean zer den ez dakitelako. Ni soilik emakume bat naiz adjektiborik gabe, baina aditzekin adierazten saiatzen dena maitatzen duena besterik gabe zilarrezko hilargi betea bezala zu, ene maitea.*

Herri ondarearen  
altxorretako bati  
agur

Jexux LEONET PERURENAREN FAMILIA

Urtarrilaren 26an, (558 alea) Aranoko herriari dagokion atalean agertutako *Herri ondarearen altxorretako bati agur* erantzuna eman nahian idazten ditugu lerro hauek...

Gure aita, Jexux Leonetek zorrotz mantendu nahi izan zituen Aranoko herriaren ttikitatik, ikusi eta «dastatu» zituen eguneroko bizitzan eta sozialki ematen ziren gertakariak.

Honela ulertuko genuke bere partehartze soziala hain aktiboa: Aranoko Udalean zinegotzi, Ehiztari elkartearen lehendakari, txistu jole, dantzari taldean, pianoa jotzen edo abesbatza zuzentzen eta nola ez Inauterietan zomorro. Ez zuen ezezkorik eman,

Aranoko hizkuntzaren ikerketetan, Oiartzungo Herri Musikaren Txokoan ere bere ekarpena egin zuen, Aranoko bizimoduari, ohitura eta ikerketetan... beste eginkizun batzuen artean.

Deskribapen honek ulertaraziko digu eskatu genionean bere laguntza Aranoko inauteriak, musika, zahagidantza, zomorroen janzkera, eta egun honetako pasadizo guztiak agertzeko, oso gustora lagundu zigula eta oraindik gustorago atal nagusiak berreskuratu zirela ikusi zuenean.

Honengatik jakin, berak oso gustora egin zituela gauza hauek guztiak, eta guk ere eskerriak eman nahi dizkizuegu berari zuzendutako artikulu horregatik. ESKERRAK ematea baino ez zaigu gelditzen familia osoaren partetik.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57



**BORTZIRIETAKO KONTZILIAZIO ITUNA**

# Martxoak 8, urtean 365 egun

Beste urte batez, 2012 urtean, mundu mailako Nazio Batuen oroitzapenarekin bat eginez Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu dugu. Martxoak 8 honetan, genero arrazoiak dirrela eta gizartean oraindik errota ditugun

desberdintasun eta diskriminazioak gaindituz, emakumeek izaki sozial moduan autonomia eta independentzia osoa lortzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Berdintasunezko gizarte batean bizi garenaren sinesmena geroz eta zabalduagoa dago. Boto eskubideak, ordezkaritza politikoak, eskolatzeko edo hezkuntzarako sarbideak, di-

ru sarrera propioak eta lehen pertsonan parte hartzeko aukerak, emakumeak gizonezkoen parean daudela pentsarazten baitute. Berdintasun formalaren irudikeria baino ez da.

Alabaina, errealitateak etengabe aldendu egiten gaitu, emakumeenganako biolentzia estatistikek,

lan eremu desberdintasunek, etxeko zaintza eta ardura desberdintasun-



nek... argi erakusten duten moduan. Gizarteko kide garen aldetik, diskriminazioak gurean oraindik bizirik segitzen duela eta emakumeon eskubideak eraginkorrak izan daitezzen lanean tinko jarraitu behar dugula argi izan behar dugu.

Genero pribilegioen amaiera ez da mehatxu personal moduan hartu behar, gizartea osatzen duten pertsonen bizi kalitatea hobetuko duen onura bialatuko duen garapen ja-

sangarri batean lan egiteko aukera moduan baizik. Inguruaren osotasuna, bideragarritasun ekonomikoa eta egungo eta biharko belaunaldiendako gizon eta emakumezkoak pertsona moduan desberdinak baina aukerei dagokionez berdina izanen diren gizarte bidezkoago bati erantzunen dion etorkizuna eraiki dezakegu.

Honengatik guztiagatik, ADIERAZTEN DUGU Bortzirietako Kontziliazio Itunatik, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna erdiesteko lanean tinko jarraituko dugula urte osoan zehar.

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak • [ssb@lesaka.net](mailto:ssb@lesaka.net) • Tel: 948 635036

**Uda honetan, ez zaitez etxean gelditu.**

<b>Tenerife</b> 8 egun / 7 pert. Oheak Bikarrik Aptuak Florida	<b>317€</b> 1000€	<b>Riviera Maya</b> 8 egun / 7 pert. Oheak Bikarrik H. Riu Lygia *****	<b>875€</b> 1000€
<b>Menorca</b> 8 egun / 7 pert. Oheak Bikarrik Aptuak Celine Blicco	<b>377€</b> 1000€	<b>TUNIS</b> 8 egun / 7 pert. Mantelu Erdo H. Mactoum ***	<b>342€</b> 1000€
<b>Punta Cana</b> 8 egun / 7 pert. Oheak Bikarrik H. Baccara Park *****	<b>788€</b> 1000€	<b>INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:</b> Ezlegara 22, bidea 31780 BERG Murgueta Tel: 948 635 308 E-mail: <a href="mailto:ssb@lesaka.net">ssb@lesaka.net</a>	

**Erreserbak martxoaren 31 baino lehen %5 Deskontua**

Alduraren itzerak lehenetik Menorcara, gainerakoak bileratik sartu Kanbera Madriletik dela. %50ak gertatzen bakoitzeko gure gela bikoitzean eta aliesarritako erregimenean. 2012ko Udako denboraldiko itzerak zehatz betzuetan akzio bakoitzean. Gurekin zehaztuak. Erreserba egitearen kudeaketa gastuak (IDC) sartu gabe. %5 gehiago Visa Viajes lehenetikin ordainduz. Santander Consumer Finance. SAk jasotako. Itzeriak Viajes Itieraren kontu. Eniakude hau finantza-erakundeak balmentzearen zain. Kontsulatu zure jarduera berriz baliatuz.

**VIAJES IBERIA**

# BERA

MERKATARITZA → HAUSNARKETA PROZESUA

## 34 proposamen zehaztu ditu merkataritzari buruzko gogoetak

Bi hilabetetako lanen emaitza da

### TTIPI-TTAPA

Udaleko Garapen Batzordeak antolatuta, Larun Haizpe merkatarien elkartearekin elkarlanean, merkataritzari buruzko gogoeta prozesu parte-hartzailea garatu dute 34 herritarrek. Sekto-arearen indarguneak, ahulguneak, aukerak eta mehatxuak aztertu dira eta bide batez, etorkizuneko lan-ildoak finkatu.

Indarguneeen artean hauek daude: sektorearen hurbiltasuna, konfiantza, profesionalizazioa eta eskaintzen duten zerbitzu osoa; Larun-Haizperen lana; eta sektoreak herriko ekonomiarri egiten dion ekarpena.

Ahultasunen artean hauek aipatu dira: bezero falta; komertzianteen inplikazio handiagoaren beharra; instituzioekin lan gehiagoren beharra; turismoa eta formakuntza indartzea; sektorearen be-lanaldi aldaketa falta; ordutegiak; merkataritzan euskararen egoeraren diagnostikoa; eta irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetu beharra.

Aukeren artean, herriaren kokapena eta komunikazioa daude, baita lardingo eskaintza ere; herriaren potentzialitate turistikoa; herriko kultur dinamismoaren balioa eta osagarritasuna; sarean lan egitearen potentzialitate; eta teknologia berrien aukerak ere bai.

Mehatxuen atalean merkataritza guneen gaia nabarmendu da, herrigunetik kanpo azpiegitura handi batek eraginen lukeen kaltea adieraziz.

Hamar urte barru merkataritzak nolakoa behar lukeen ere zehaztu da, lau ideia nagusi bilduz: dende herriarrak zein bisitariak erakarri behar dituztela; herritarren beharrak asetzeaz gain eskaintza anitza, desberdina, profesionala eta nortasun propioduna behar duela merkataritzak; kalitateko zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak izanen dituen merkataritza behar dela eta auzoetan presentzia behar duela.

34 dira hurrengo hamar uteetarako proposamenak, tartean hauek:

- Merkataritza-ibilbide bat, oinezkoen mugikortasuna lehenetsiz.
- Aparkalekuak arautu.
- Irisgarritasuna hobetu, espaloietan eraginez.
- Argi publikoa hobetu.
- Merkataria, ostalari, kultur talde eta Udalaren arteko koordinazioa.
- Merkataritzarentzat berezko marka sortu.
- Merkataritzaren euskararen egoeraren diagnostiko bat egin.
- Bezeroak fidelizatzeko ekimenak garatu.
- Online erosteko aukera bultzatu.
- Erosketak etxera eramateko zerbitzua.
- Denden ordutegia zabaldu.
- Bertako produktuak sustatu.



ARGAZKIA: LABIAGA IKASTOLA

### Xorroxin Irratian eta Eskiko Astean Labiaga ikastolako ikasleak

Aldi honetan ere, Xorroxin Irratiaren bisita izan dute Labiaga ikastolan tarte aski atseginak pasatuz. Eta 6. eta DBH 1. mailako ikasleak Izaban ibili dira eskiatzen. Kirolaz eta paisiaiaz disfrutatzeaz gain, lagun berriak ere egin dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Aurpegi berriak Larun Haizpeko zuzendaritzan

Otsailaren 14az geroztik, zuzendaritza batzorde berria du Larun Haizpe merkatarien elkarteak. Fran Agara da lehendakaria, Maria Jose Zozaia lehendakariordea, Lourdes Telletxea diruzaina, Bea Artola eta Maria Jose Ara idazkariak dira eta Patxi Pikabea bokala. Salgai Hondarren azoka izan da merkatariek egin duten azken ekimenetako bat, eta erran, milatik goiti bisita izan zituela azokak.

- Herriko komertzioan eta arduraz erosteko garrantzia azpimarratzeko kontzientziazio kanpainak antolatu.
- Komertzioen berrikuntza estetikoak landu.
- Herria eta espazio publikoa dinamizatzeko jarduerak bultzatu.
- Turistikoki herria garatu.

**DROGERIA ETA LURAINDEGIA**

GURIA

JUBILAZIOAGATIK DENDA IXTEN DA

maiatza erdialdera arte

Altzate, 33 - BERA  
T. 948 630 388

KULTURA → SAN ESTEBAN BESTAK

## Sanestebanak antolatzeko lehen bilera martxoaren 26an egingen da

### Parte hartzeko eskatu du Kultur Batzordeak

#### TTIPI-TTAPA

Oraindik bestak urruti daudela iruditu arren, San Esteban bestak prestatzen hasteko tenorea ailegatu da. Aurtengoak ere arrakastatsuak eta parte-hartzaileak izatea da helburua eta horretarako, bestetako lehenbiziko bilera parte hartzeko gonbidapena egin du Kultur Batzordeak. Bilera irekia hilaren 26an izanen da, 18:00etan, Beralandetan.

#### Bertso afaria Agerran

Agerra Mendi Taldeak bertso afaria antolatu du martxoaren 31rako Jon Maia eta Maialen Lujanbiorekin, 21:00etan.

#### Ehiza barrutia

Herriko ehiza barrutia eta bere esleipena 2011-2012 ehiza denboraldia bukatzean agortuko denez, Udalak tokiko ehiza barrutia eratu eta esleitzeko bidea abiatu du, 10 ehiza denboraldirako. Esleipena Herriko Ehiztarien Elkarteari zuzenean esleitzeko prozeduraren bidez egingen zaio. Espedientea udal bulegoetan egonen da ikusgai, 15 egun baliodunean, iragarria Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, barrutian sartu beharreko lurren jabeek aukera izan dezaten lurak barruti horretan sartu nahi ez dituztela errateko. Joan den astean publikatu gabea zen boletinean.



#### Ba al zenekien...

**Salazones Udana enpresa Gourmet Klubaren Nazioarteko Aretoa izan dela? Goi gamako produktuen, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko topagune izatea da aretoaren helburua.**

Martiko  
P.N. Zabal, 4/1n  
31791 Dena, Nafarroa  
Tel: 948 629010 Fax: 948 629036  
www.martiko.com

**DENDA ORDUTEGIA:**  
astilehenetik  
ortziralera  
08:00etatik  
17:00etara



UTZITAKO ARGAZKIA

#### Zuhaitzaren Eguna

50 bat zuhaixka landatu ziren martxo hasieran egin zen Zuhaitzaren Egunean. Ehi-za eta Arrantza Elkartearen ekimenez egin da aurtun ere landaketa eta Lizuniaga inguruan egin zen, Granjan. Lan egin ondotik, bildutakoek bokadilloak jan zituzten.



ARGAZKIAK: NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

#### Gaztetxoak herri kirol jolasetan

Nafarroako Herri Kirol Jolasetan parte hartzen ari dira argazkiko gaztetxo hauek, kadeteetan. Aipatu, martxoaren 18an herria jokatzekoa zutela jardunaldia.

## Gure Txokoaren urteko batzarra

Berandu bada ere, ezin aipatu gabe utzi Gure Txokoa elkarteak urteroko batzar orokorra eginga duela aurtun ere. 40 bazkide bildu ziren eta iazko aktaren irakurketa eta onarpenaren ondotik, 2011ko kontuak aurkeztu eta egindako ekimenen balantzea egin zuen zuzendaritza batzordeak. Kontuei dagokienez, iaz 84.500 euro inguruko aurrekontua izan zuen. Gasturik handiena futbolak sortzen du, 22.200 euro inguru, eta Lurraren Egunak 10.000 euro, nahiz eta azken honen gastu gehienak Udalak hartu bere gain. 2012an aurrekontua zerbait murrizten saiatuko da elkarteak, dirulaguntzak ere murriztu direlako.

**Futbole**an 140 jokalarik inguru dauka Gure Txokoaren izenean eta datorren denboraldirako nesken taldea atara nahi da. Aretu futbole, bi talde daude. **Pilotan**, txapelketetan parte hartzen duten 50 pilotari ditu. **Txi-**

**rrindularitzan**, ohikoak diren probez gain (Felix Errandonea memoriale, BTT itzulia, Larunera igoera), jendeak gustura hartu zuen Trialsin proba. Aurtun ere ohiko probak antolatuko dira, baina trialsin eta afizionatuena, garestiak direnez, ikusi egin behar da egiten diren ala ez. **Atletismo** sailean Altzateko bestetan emakumeentzako laisterketa eta urrian Lizuniaga-ko igoera antolatu ziren. **Dantza** saila da ekonomikoki galerarik ez duen bakarra, bestetako festibalarik eta Udalarekin dagoen akordioari esker. Aurtun, elkarteak Ibardinekin duen dirulaguntza hitzarmena tarteko ekitaldi pare bat egingen dira Ibardinem. Gainerakoan, 25. **Lurraren Eguna, ipuin kontalarien saioak, erakusketak, mus txapelketa...** egin dira. 2012an bide beretik lan egiten segituko da eta diru irabaziekin lamotenean moldaketak egiteko asmoa dago.

# LESAKA

KULTURA → LAU DANTZA TALDE BILDUKO DITU

## Tantirudantza jaialdia apirilaren 1ean ospatuko da

Etxalar, Astigarraga eta Getarikoak ariko dira dantzari Tantirumairu taldekoekin batera

### Aitor AROTZENA

Tantirumairu euskal folklore taldeak antolatuta Tantirudantza jaialdia ospatuko da apirilaren 1ean. Herriko Tantirumairu taldeko dantzariekin batera, Etxalar-ko Altxatakoak eta Gipuzkoatik, Getariko Gure Txeru eta Astigarragako Astigar taldekoak ariko dira.

10:30 aldera ongi-entorria eta hameketakoa eskainiko zaie dantzariari eta gero talde bakoitzak ibilbide bat egingen du karrikaz karrika. 12:00etan herriko dantzariak *Zubigainekoa* dantzatuko dute eta gero, 12:45ean, plazan emanaldia eskainiko dute talde guzietan. Kanpo-

tik etorritako dantzariak herrikoen etxeetan bazkalduko dute eta musikari eta arduradunek herriko jatetxe batean. Arratsaldeko 17:30ean, Kiki eta Koko pailazoez eskainiko duten *Parranda Tutiplén* ikuskizunarekin bukatuko da aurtengo Tantirudantza.

### Mus txapelketa Xalao, Xorroxin eta Ttipi-ttaparen alde

Martxoaren 23an, ortziral arratseko 23:00etan jokatu da Arrano elkartearen Xalao, Xorroxin eta Ttipi-ttaparen aldeko mus txapelketako herriko lehia. Lehenbiziko saria, lau lagunentzako afora Arranon izanen da, bigarrena entrekota eta sagardoa eta hirugarrena bina botil ardo. Finala apirilaren 14an jokatuko da Sunbillan.

### San Fermin elkartearen Gernikara

San Fermin erretiratuen elkarteak Gernika-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Diska karrikaratu du Arma Tiro Punk taldeak

Herriko Kepa Txoperena (baxua) eta Andoni Zubirirekin (ahotsa) batera, Bera-ko Hodei Hernando eta Hendaia-ko Eñaut Jauregi eta Julen Robidar-ek osatzen duten Arma Tiro Punk taldeak bere lehen diska karrikaratu du. Punk doinu eta letra zuzenak dituzten zortzi abesti sartu dituzte CDan eta 5 eurotan salgai dago herriko dendetan. Lehenbiziko kontzertua Baionan eskaini zuen taldeak 2010eko ekainaren 21ean eta geroztik hainbat emanaldi eskaini ditu, tartean Bittiriko bestetan ere. Diska Andoainen grabatu dute, Bap taldeko Jomes gitarrajolearen estudioan.

ra bidaia antolatu du apirilaren 16rako. Txartelak 28 euroren truke salgai daude jubilatuen ostuan apirilaren 8a edo autobusa bete bitarte.

Egun horretan, goizeko 08:00etan abiatuko da autobusa plaza-tik eta Gernikan, jantetxea eta azoka bixitatu ondotik, Lekeition bazkaldu eta herria ikusiko dute. Bazkaltzeko menuan, urdaiazpikoa, zainzuriak, fritoak, legatza frexkoa plantzan,

txuleta patatekin, postreak, edariak, kafea eta kopa sartua dute. Etxerako bidean Ondarroa ere bixitatuko dute eta gero herrira bueltatuko dira.

### Beti Gazte Santiago Bidean

Joan den urteko ibilbideari segituz, Santiago Bideko bosgarren etapa egingen du martxoaren 25ean Beti Gazteko mendi taldeak, Iruña eta Gares ar-

teko 25 kilometroak hain zuzen ere.

### Edoskitze Taldea eta Irakurketa Kluba

Bularra ematen duten amak biltzen dituen edoskitze taldea martxoaren 29an, 17:30etik 19:30era bilduko da. Beti Gazte elkarteak antolatzen duen Irakurketa Kluba berriz, martxoaren 31n, 19:00etan. Biak Koskontako Bideko 7.eko udal aretoan dute hitzordua.

MERKATU TTIKIA

# MERKATU TTIKIA

OINETAKOEN  
MERKATUA

10€  
eta  
15€

BOTA LUZEAK

15€

BI PARE  
ZAPATA

10€

PARE BAT  
ZAPATA

txinelka

MARTXOAREN 24an, LESAKAN

Golzeko 10:00-20:00 (eguerdian itxi gabe)

DENDAN BERTAN

NEGUKO DENBORALDIKO OINETAKOAK

GIZARTEA → ASIAKO LIZTORRA

## Liztor beltzen kabiak nonahi agertu dira herrian barna

Negua pasatu bezala bistan gelditu dira kabiak

beharko dugu ea gure inguruan horrelako kabiaren bat topatzen dugun eta segidan desegin, gure erleen mesedetan izanen baita.



ARGAZKIA: JUANITA ETXEBERRIA ETA ITSASO ELIZAGOIEN

Argazkietan hiru kabi ageri dira: Argiñene aldean agertu dena, Beheko etxeko belati bazterrekoa eta Irigoien zerrategitik hurbil dagoena.

### Irune eta Itsaso

Zuhaitzak historik gabe gelditu direnean, hainbat lekutan Asia-ko liztor beltzen kabiak agertu dira. Nahiko haundiak dira gehienak, baina orain hutsik daude, liztorrak negua pasa arte lur azpiko kabetan daudelako.

Laister liztor beltzak lurpetik atera eta kabi ttikiak egiten hasiko dira. Hortaz, udaberri eta uda partean erne ibili

### Dantzari ttiki eguna

Dantzari Ttiki Eguna Lesakan ospatuko da apirilaren 1ean eta Etxalarko 13 urtetik beheitiko 24 dantzariak gonbidatuak daude ekitaldi honetara. Azken urte hauetan, etxalartarrek ez zuten egun honetarako gonbidapenik hartua, eta ekintza berri honetako ilusioz eta gogotsu daude.



ARGAZKIA: IRUNE ETA ITSASO ELIZAGOIEN

### Finlandia programan

Martxoaren 6an bigarren aldiz herritarrak izan ziren Finlandia programako publiko. Bertze behin ere, irri aunitz eginda, gustura bueltatu ziren 48 herritarrak. Saioa hilaren 11n eman zuten, baina oraindik ere badago Internetez ikusteko aukera.

**mutuavenir:**  
aseguruak eta zerbitzuak



Plaza Berria, 7 • LESAKA • 948 638 031

Zuretzat dena ongi joan dadin lan egiten dugu



San Esteban, 11 • BERA • 948 630 601

Zuk esango diguzun nolakoan diren zure munduan eta nolakoan nahi duzun izateko

# ARANTZA

GIZARTEA → GAZTE MARTXA SARATIK LESAKARA

## Gazte martxaren aurkezpena eginen da ortziral honetan

Kalejira, bideo emanaldia eta afaria izanen dira

### Nerea ALTZURI

Euskal Herri osoko gazteen artean sortu den Jalgi Hadi Garaipenera ekimenak mendi martxa antolatu du Saratik Lesakara. Apirilaren 6an abiatuko da Saratik eta bihamunean ailegatu Lesakara. Gazte martxa horren aurkezpenak herriz herri egiten ari dira eta Arantzan ortziral honetan, hilak 23, izanen da.

20:00etan egin da hitzordua plazan eta handik abiatuta, herrian barrena, triki-bertsu-poteoa eginen da Josu Sanjurjo, Amaia Elizagoien eta Maddi Ane Txoperena bertsolariekin. Ondotik, Ekaitza Elkartearen bideo emanaldia eta afaria izanen dira. Afarirako txartelak 15 eurotan egonen dira salgai Aterpean, Lesakan (Arrano), Beran (Kataku), Elizondon (Intza) eta Etxalarren (Herriko). Eguna borobiltzeko, gauean, Aterperen eskutik kontzertuak izanen dira Aterpean Zulu 9.30 eta Caipirinhas taldeekin. Animatu eta parte hartu!

### Sagardotegira

Aitzinekoan aipatu bezala, aurten ere sagardotegira ateraldia antolatu du Gazte Asanbladak. Martxoaren 31n Iparragirre sagardotegira joanen dira. Autobusa

13:00etan aterako da eta 03:00etan itzuli.

### Patxikunborda errea

Horrelako berriak nahiago izaten dira ez eman, baina zoritxarrez gertatu egiten dira. Aien-tsako Patxikunborda baserria martxoaren 5eko goizaldean erre zen. Kalte material haundiak izan baziren ere, zorionez ez zen inor zauritu, barrenean etxeko bat zegoela kontuan hartuz. Hiru solairuko eraikina landetxe bilakatzeko lanetan ari ziren eta sutearekin kixkalia gelditu zen.

### Mendi Itzulia

Bi urtetik behin egiten den mendi itzulia maiztaren 20an izanen da. Mendian ibiltzeko ohitura duenak ibilaldi polita egiteko aukera izanen du eta sekula egin ez eta egin nahi duena berotzen has daiteke!

### Sagardotegia Burlada ostatuan

Sagardotegi garaian sartuak gauden honetan, ortziral honetan, martxoak 23, sagardotegiko menua eskainiko dute Burlada ostatuan. Afaria izanen da eta norbaitek joan nahi badu aitzinetik abisatu dezala.

### Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Ez da sekula gaizki etortzen oroitaraztea. Apirilaren 21ean, Beran, hitzordua dugu Euskal Herriko pailazo mundia-



ARGAZKIAK: MENTXU PEÑA ETA G. PIKABEA

### Emakumeen egun erogarriak!

Emakumeren Nazioarteko Egunaren harira, martxoaren 11n, 41 emakumek Ternidako mendi buelta egin zuten. Harrera izugarria izan zuen deialdiak eta Bortzirietako emakumeak bildu ziren, tartean, dozena bat aranztar. Ternidarako bidean eta bertan kanta eta irrintziak egin ondotik, herrira itzuli ziren. Gehienak Aterpen bazkaltzen gelditu ziren eta gustura pasatu zuten. Heldu den urtean, etxalartar emakume mendizaleek eguna prestatuko dute. Bertzetik, aitzineko ortzirallean, kalejira egin zen herrian, emakumeen aldeko aldarriak eginez, musika, bertso eta dantza artean.

lenekin. Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek ikuskizuna eskainiko dute Pelle Ttiki haur eskolaren alde. Txartelak salgai toki hauetan: Bera (Errekalde), Lesaka (Atxaspi), Doneztebe (Titi), Elizondo (Fantxike), Igantzi (La Villa), Etxalar (Herriko), Sunbilla (Aritzigain), Arantzan (Pabloenea), Urdazubi (Farmazia) eta Irunen (AEK euskaltegian).

### Mus txapelketa

Ttipi-Ttapa, Xorroxin eta Xaloaren aldeko mus txapelketa jokatu da martxoaren 30ean Ekaitza Elkartearen. Animatu!



ARGAZKIA: AINTZANE PIKABEA

### Irurtzunen dantzan

Martxoaren 10ean Irurtzungo Dantza Jaialdian parte hartu zuen argazkiko dantzari eta musikari taldeak.



OSPAKIZUNAK → EUSKARA BATZORDEAK ANTOLATUTA

## Martxoaren 30etik apirilaren 1era izanen dira aurten Udaberriko Bestak

Tartean, UEMA-ren inguruan aurkezpena egingen da

**Joxean ORTEGA**

Bertze urteetan baino lehenago izanen dira aurten Udaberriko Bestak. Beste hasiera emateko mus txapelketa izanen da martxoaren 30ean, ortzirala, Biltokin, 22:00etan hasita. Txapelketa Ttipi-ttapa, Xorroxin eta Xaloaren alde izanen da. Bikote bakoi-tzak 20 euroko inskripzioa ordaindu behar du, eta bildutako dirua komunikabide horientzat izanen da. Bikote txapel-dunak txanpaina eta haragia jasoko ditu eta bigarrenak ardo eta haragia. Gisa horretako txapelketa herriz herri antolatuko dira, eta finala apirilaren 14an izanen da Sunbillan.

Martxoaren 31n, San Joan Xarrera ibilaldia egingen da, plazatik 10:00-

etan abiatuta. San Joan Xarko berri aditzeko aukera izanen da: zergatik den erreserba naturala, uraren eta iturrien informazioa, nola garraiatu zuten harrizko santua... Egun bereko 18:00etan herriko trikitilari eta pandero joleek kalejira egingen dute, eta segidan, 19:00etan *Igantzi UEMAn sartuko da. Zer da UEMA?* aurkezpena egingen da, Elizateko (lehenago Herriko Etxeko) bile-  
ra gelan.

Hurrengo egunean, apirilak 1, 11:00etan hasita, Nafarroako Herri Kirol Jolasetako finala jokatuko da. Eta 19:00etan, azken hilabeteotan hain ezaguna egin den *Bertsolari* film-dokumentala eskainiko da Erretorbaitan. Dokumental hau iazko Donostiako zinemaldian aurkeztu zen eta arrakasta handia izan du. Bertan azaltzen zaigu bertsolariak bertsoa egin aitzinetik zer bizitzen duen, zer pasatzen zaion burutik, izaten di-



ARGAZKIAK: NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

### Herri Kirol Jolasetako jardunaldia apirilaren 1ean Igantzin

Aurten ere bi talde osatu dituzte herriko neska-mutikoeek Nafarroako Herri Kirol Jolasetan: Unanu eta Abelu, biak kimuen kategorian. Aipatu, apirilaren 1ean Igantzin jokatuko da Herri Kirol Jolasetako azken jardunaldia. 11:00etan hasiko da.

tuen sentsazioak. Sarre-  
ra hiru euro kostako da,  
eta 14 urtetik beheiti-  
koentzat euro bat.

### Igantzi UEMAn

Udalak UEMAn (Udal-  
erri Euskaldunen Man-  
komunitatea) sartzeko  
asmoa du. Erabakia har-  
tu baino lehen, ordea,  
herritarrei ongi azaldu na-  
hi die zer den UEMA, eta  
zer suposatuko dion he-  
rriari eta Udalarri manko-  
unitatean sartzeko. Ho-  
ri dela eta, Udaberriko  
Besten programazioan  
gai honi buruzko aurkez-  
pena egingen dute, mar-  
txoaren 31n, 19:00etan.

Herritarrei UEMA zer  
den azaltzeko, eskolako  
haurrek bideo bat egin  
dute, *Pagolizarra eta eus-  
kara* deitzen dena. UE-  
MA zer den azaldu du-

te, eta zergatik hartu be-  
har dituen Udalak eus-  
kararen aldeko neurri be-  
reziak. Udalak bereziki  
gonbidatu nahi ditu he-  
rritarrek aurkezpen hone-  
tara, gaiaren inguruan in-  
formazioa hartzeko.

### Igerilekuak

Igerilekuak kudeatze-  
ko aurtengo deialdia za-  
baldu du Udalak. Urtero  
bezala, Udalak diru ko-  
puru bat eskainiko du  
(aurten 1.500 euro) eta  
trukean igerilekuko os-  
tatuaren ardura emanen  
du. Aurtengo denboral-  
dia ekainaren 15etik irai-  
laren 15era izanen da.  
Oinarriak Udaletxean  
daude, eta interesa due-  
nak bertan irakurtzen ahal  
ditu. Eskerak aurkezte-  
ko epea martxoaren  
30ean bukatuko da.

### Kultur batzordeko berriak

Martxoaren 25ean  
*Aupa Etxebeste!* filma  
izanen da Ziberrean,  
19:30ean.

Apirilaren 7an Kantu  
Zaharren bazkaria egi-  
nen da Baratzondon.  
14:00etan egingen den  
otorduarekin hasita, arra-  
tsalde osoan marranta  
gelditzeko aukera izanen  
da! Txartelak 25 eurotan  
apirilaren 2ra arte salgai.

Handik egun batzue-  
tara, apirilean, Kinto Egu-  
na ospatu nahi da: egu-  
nez kintoen arteko erro-  
nka eta lehiaketak, eta  
ilunabarrean elektrotxa-  
ranga. Egun hau presta-  
tu eta data zehazteko,  
Kultura Batzordeak par-  
te hartu nahi duten kin-  
toak bilera batera deitu-  
ko ditu. Hasi prestatzen!

# SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 30ETIK APIRILAREN 1ERA

## Ekitaldiz beteriko Asteburu Kulturala izanen da aurtengoa ere

Haur, gazte eta helduek izanen dute ongi pasatzeko aukera

### Maidar PETRIRENA

Aurten ere, Asteburu Kulturala izanen dugu martxoaren 30etik apirilaren 1era. Hauxe izanen da egitaraua:

### MARTXOAK 30, ORTZIRALA

- 16:30ean: haur jokoak.
- Ondotik: txokolatada.
- 22:00etan: Xaloa, Xorroxin eta Ttipi-Ttaparen aldeko mus txapelketa Ulibeltzak Elkartearen.

### MARTXOAK 31, LARUNBATA

- 11:30ean: patata tortilla lehiaketa (osagaiak bakoitzak eraman behar ditu). Apuntatzeko kartela Itturburun dago.
- 14:00etan: bazkaria Ulibeltzak Elkarteak (txartelak Itturburu eta Fondan egonen dira salgai martxoaren 25era arte).
- Bazkaldu ondotik, ginkana herrian barna.

- 15:30ean pintura lehiaketarako izen-ematea.
- 16:00etan haur ttikienezako jokoak.
- Ondotik, merendola eta sari banaketa.
- Ilunabarrean triki poteoa.
- 21:00etan patata tortilla pintxoak Itturburun.

### APIRILAK 1, IGANDEA

- 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era merkatua eta gasna lehiaketa.
- 18:30ean gasna lehiaketaren sari banaketa eta saskiaren zozketa.

### Argazki lehiaketa

Aurten lehenbiziko aldiz, Udalak inauterietako argazki lehiaketa egin du herritarrok bakarrik parte hartzeko. Otsailaren 29an izan zen aurkezteko azken eguna eta dagoeneko badugu irabazlea: Linda Irazoki izan da. Zorionak!

### Kinto bestak

Hasiak dira herriko kinto bestak ospatzen.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

### Xabierraldian

Martxoaren 6an Arkupeak Jubilatuen Elkarteak Xabierraldira ateraldia antolatu zuen eta tartean hamabortz herritar joan ziren. Bertzetik, Ulibeltzak Mendi Taldeak martxoaren 2, 3 eta 4an egin zuen irteera Xabierrera, izugarrizko denborarekin.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

### Kantu zaharren besta

Martxoaren 10ean kanpinean kantu zaharren besta egin zen, giro hagitz onean.

Otsailaren 25ean 1959 eta 1960an jaiotakoek egin zuten kanpinean eta eguna giro onean joan zela aipatu digute. Martxoaren 3an, 1957koek egin zuten, kanpinean.

### Emakumeen afaria

Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko

Egunazela eta, Itturburu ostatuan 21 emakume afaria egin zuten aldarrikapena eginez.

### Ezusteak

Otsailaren 23 eta martxoaren 9an suteak izan ziren bietxetan. Martxoaren 1eko gauean, berriz, Ulibeltzak Elkartera ebas-

tera sartu eta telebista, DVDA, dirua eta edariak eraman zituzten, baita hiruru ate bortxatu ere.

### Pilota

Bortzrietako eskuz banakako txapelketako finalean aritu zen Iker Espelosin, baita txapela ekarri ere. Zorionak!

**KOXKONTA**  
Jatetxea

Espeletoleakako barneraldi | Jaurriatzeleakako barneraldi  
Eguzkia eta abuztuak menuak | Xarta |

**SAGARDOTEGIA**  
IREKIA dago

Sagardotegiko menuak aukeran

Ude gutxiagun egunero,  
eguerditan irekia  
Gauz irekia  
artilo eta karriboletan  
Sagardotegia ere!

T 948 627 519 • 948 627 503 | Otsango, 1 • LESAKA

**A**

aterpe

T 948 634 119  
ARANTZA  
www.arantzita.net

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK

Sukalderako altzarrik

Barneko errea • LESAKA  
Tel: 948 637 266 • 907 226 891 • Fax: 948 637 511



# DONEZTEBE

GIZARTEA → XABIERRALDIA

## 40 lagunek egin dute Iruñeatik Xabierrera bidea oinez

Erantzun ona izan du Erreka Elkartearen deialdiak

### Nerea TELLETXEA

40 pertsonak eman zuten izena joan den martxoaren 10ean Erreka Kirol Ekarteak antolatu zuen Xabierrera joateko ateraldian.

Goizeangoiz egin zuten irteera, goizeko 5etan, eta autobusak Iruñearaino eraman zituen. Handik Xabierrera dauden 42 kilometroak oi-

nez egin zituzten. Denak hagitz kontent bueltatu ziren.

### Malerreka kantuz

Malerrekako Euskara Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Malerreka Kantuz ekimena antolatu du eta martxoaren 2ko arratsaldean, eliz atarian bildu ziren ekintza honi hasiera emateko. Taldea herrian barna ibili zen giroa alaituz.

Hurrego hitzorduak apirilaren 6an, Iturengo plazan, 19:30ean, eta maiatzaren 4an ordu berean Donamariako plazan izanen dira.

### Zinema igandean

Film emanaldiek aitzinera segitzen dute. Hala, martxoaren 25ean, 17:00etan, *Ice Age 3* filma ikusteko aukera izanen da, euskaraz. Eta 19:00etan *Colombiana* eskainiko da.



ARGAZKIA: NEREA TELLETXEA

### 2011n jaiotako enbaitzak

2011n jaiotako haurrek zuhaitz bana landatuta dute dagoeneko. Martxoaren 4an, euria ari zuela, abiatu ziren familia guztiak zuhaitzak landatzera. Landaketaren ondotik, giro ederrean, hantxe gosaria eskaini zuen Udalak partaide guztientzat.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Aukeren azoka arrakastatsua

Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak Intzakardi karrikan antolatutako eskaintza azokak arrakasta handia izan zuen. Azokan eskaintza handia izateaz gain, denboraldi berriko aurre erakusketa egin zuten. Barietate handiko aukera egondu zen. Arratsaldean haurren jokoak izan ziren trikitilariak girotuta. Eskerrak eman handik agertu ziren guztiei. Bertzalde Guraso Elkarteak antolatutako zinemaldiarekin elkarlanean dabil Merkatarien Elkarteak.

### Ba al zenekien...

Tantu bakarragatik **Berria Pilota Txapelketatik kanpo gelditu dela Erreka Pilota Eskola? Finalurdenetako kanporaketan gelditu da aitzinera egin ezinik. Kadeteen partida 16-22 galdu zuten, jubenetakoa 22-9 irabazi eta seniorrena 21-22 galdu. Iaz hirugarren izan zen Erreka eta 2006an azpitxapeldun.**

**Zalain**  
JATEXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa zig. 31780 Bera - Naleros  
T: 948 631 106 | www.zalain.com

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA

Phon/Fax: 948 630 018 | Kastionberril 12 - BERA

**Karsuk**  
Muebles de cocina  
Muebles de cuisine  
Sukaldako altxariak

**K**  
Carlos Pontibar Saenz

C/Sara 1 bajo local C  
31780 Bera (Na)  
T/F: +34 948 625 430  
M: +34 699 894 084  
info@karsuk.eu  
www.karsuk.eu

**ola**  
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menuak

**TXOTX GARAIA IREKIA**

102 Meeka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 423 138

## ITUREN

GIZARTEA → UDALAREN EKIMEN BERRIA

# Herriko kezkak eta beharrak biltzeko inkesta eginen du Udalak

Gisa guztietako eragileek parte hartzea nahi du Udalak

## Arkaitz MINDEGIA

Gogotik ari da lanean Udala joan den azarotik honat. Berriki herriko eragileekin bile-  
rak edo inkesta tiki bat egitea proposatu du, herriko kezkak eta beharrak biltzeko eta egoeraz solasteko. Udaletik erran dutenez, herriko jende guztiari emanen zaio inkesta tiki honetan parte hartzeko aukera, bai elkarteei, bai merkatariei, bai enpresei eta bai gainerako herritarrei ere. Denen kezkak jakin nahi baitituzte.

## BESTETAKO BILERA

Martxoaren 17an Udalak bilera irekia antolatu zuen Iturengo bestak antolatzeko. Herriko bestak antolatzen jendeak laguntzeko deia egin zuen, denen ideiak eta nahiak bilduz eta parte hartzea bultzatuz,

besta herrikoiak izan daitezten.

## Malerreka kantuz

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak Malerreka kantuz ekimena paratu zuen martxan martxoaren 2an Donezteben. Deialdi polita atera zen, arrakastatsua, eta hurrengo hilabetean gure herrian

egin da hitzordua: apirilaren 6an, 19:30ean plazan. Anima zaitzete denak gustura giro onean euskaraz kantzera.

## Pulunpa eskola

Martxoaren 26rako ateraldia antolatu dute Pulunpa eskolakoek. Gipuzkoa aldera joanen zaizkigu neska-mutiko eta irakasleak. Bi talde-

tan banatuko dira: alde batetik, Haur Hezkuntza eta Lehenbiziko Ziklokoak goizean Donostiako Aquarium eta Txiki-parkera joanen zaizkigu eta bertetik, bigarren eta hirugarren ziklokoak Pasaietan geldituko dira goizean. Pasaiatik Pasai Donibanera itsasontzian joanen dira eta gero, musoa (aspaldiko itsason-

tzien maketak), erakusketa (euskaldunon presentzia baleen arrantzan) eta azkenik, itsasontzien tailerra ikusiko dituzte. Arratsaldean Donostiako Txuri-Urdin izotz jauregira joanen dira.

## MIGEL MAISUAREN AGURRA

Aitzineko TTIPI-TTAPAAn erran bezala, gure eskolan hainbat eta hainbat urtez irakasle aritu den Migel maisua martxoaren 5ean jubilatzen. Agur berezia antolatu zuten. Hasteko, irakasle guztiak elkarrekin joan ziren bazkaltzera, eta ondotik, berriz, gisa guztietako sorpresak izan ziren Migelentzat: herriko dantzariak aureskua dantzatu zioten, herriko bertsolari eta bere ikaslea izan den Egoitz Gorosterrazuk bertsoa kantatu zion eta pergamino batean oroigarria ere eman zion, argazki bilduma bat eginez muntaia tiki baten emanaldia ere egin zen, Migelen urte guztietako argazkiak... Akitzeko txokolata izan zuten.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa

Bardoak 2012 bertsolari txapelketako bigarren faseko lehenbiziko kanporaketa Herriko Etxeko Ganbaran jokatu zuen herriko bertsolariak dabilzan Erauntsi taldeak. Leitzaundiren aurka aritu zen. Arrunt berdinak joan ziren bi taldeak, azken momentura arte lehia gogorrean, baina azkenean etxeko taldeak lortu zuen bere lehenbiziko puntua fase honetan. Joan den asteburuan Leitza aritzekoak ziren.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

- Diu-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Elkarretasun eta jubilatze espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumentuak

artekari@artekari.com

**LEZAKA:** Sibilrio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050  
**BUREATA:** La Yifo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

**TELLETXEA**  
Lorazaintza

Patxinoak • Inoziak • Berriztatzaileak • Berriztatzaileak • Berriztatzaileak

**John Telletxea** Nekazaritzako Ingeniari Teknikoak  
 Ouzaraga Ind. 18 • LEZAKA • T. 619 418 683 F. 948 637 099  
 john@telletxea.com  
 www.telletxealozaintza.com

UDALA → BASOKO LANAK

## Sasoi enpresak egingen ditu Udalaren mendiko lanak

### Lau eskaintza aurkeztu dira Udalaren deialdian

#### Fermin ETXEKOLONEA

Udalak egin beharreko mendiko lanak Sasoi enpresari esleitu dizkio. Joan den astean hartu zuen erabakia Udalak, aurkeztutako lau eskaintzen artean, onena Sasoi enpresa zela ikusita. 53.548,36 eurotan egingen ditu lanak.

Aurreko alean aipatu bezala, Goienetxe ko bordarako pistako sarrera moldatu, Aurkidi ko pistan zementua botata eta landaketak dira egin beharreko lanak.

#### Gaztegunean besta

Malerrekako Mankomunitateak euskarazko kultur jarduerak antolatzeko egin duen dirulaguntza deialdia aprobetxatuz, Gaztegunean hurrekin besta antolatu nahi dute gurasoek. Aste Santuan egiteko asmoa dago.

#### Ahozko ondarea

Malerrekako ahozko ondarea bildu du Maite Lakarrek eta lan horren aurkezpena larunbat honetan, hilak 24, egingen da Doneztebeko zine-man, 18:00etan. Lan haundia egin du Lakarrek, eta tartean zubietarrak ere elkarrizketatu ditu: Serorekobordako Alejandro eta Inaxio Ma-

ri Santesteban, Etxekekoneko Frantxiska Santesteban eta Juainas Paul.

#### Malerreka Eguna

Aurrekoan aipatu bezala, lehenengo aldiz egingen den Malerreka Eguna Zubietan ospatuko da maiatzean. Eta egun hori dela eta, egurrezko tabloi bat prestatzeari ekin diote Migel Arregi

eta Xanti Uhalde artisauek. Gereziendoko bategin egiten ari diren tabloiak *Malerreka Eguna* titulua izanen du, eta tabloi hori herriz herri joanenez, hamahiru herrietako bakoitzak bere tokia izanen du tabloian. Herri bakoitzak bere irudi edo adierazgarria den zerbait jarriko du tabloi horretan.



ARGAZKIA: ION LIZEAGA

#### Emakumeen afaria giro ederrean

26 lagun elkartu ziren martxoaren 10ean Herriko Ostatuan, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako afarian. Gustura egon zirela esan digute, eta Joxemari eta Ainhoa herriko musikarien doinuekin ere ongi pasatu zutela. Berriz egiteko gogoarekin gelditu omen dira.

#### BORTZIRIAK

Begiraleentza ko ikastaroa egingen da Bortziritan

#### TTIPI-TTAPA

Bortziritako Euskarra Mankomunitateak aisialdiko begiraleentzako ikastaroa antolatu du. Hamar orduko saioa izanen da eta hiru saiotan banatua egingen da. Lehena apirilaren 20an izanen da, 18:00etatik 20:00etara (*Udalekuetan hezkidetzan hezten* izenburupean), bigarrena apirilaren 21ean 09:30etik 14:00etara (*Haur heziketa udal-ku irekietan* gaiaren inguruan) eta azkena apirilaren 28an, 09:30etik 14:00etara (*Aisialdiko hezitzaileen eginkizuna hizkuntza normalizazioan* izenburupean). Saioak Beran izanen dira. Interesatuak Bortziritako Euskarra Mankomunitatean izen eman behar du, martxoaren 26tik apirilaren 4ra (948 634 125 edo [euskara@bortziriak.org](mailto:euskara@bortziriak.org)). Matrikularen prezioa 25 eurokoa da eta gehienez 25 onartuko dira.

**APARAN, S.A.**  
**ERRINDOLAILA eta ZURAK**

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzomerak
- Ate aruntak eta sukai de mobleendakoak
- Pintura eta bernitzak
- Banurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea



Alasta karrika  
BERA NAHARRA

# ELGORRIAGA

GIZARTEA → HERRI BATZARRA

## Presaren metro eta erdi jeistea proposatu du Udalak eta Ur Konfederazioak onartu egin du

34 lagun elkartu dira batzarrean

**Mattin LARRALDE**

Udalak deituta, martxoaren 4an herri batzarra egin zen eta 34 lagunek erantzun zioten deialdiari. Presa jeistea eta Udalak herritarrendako bainuetxearekin sinatu duen akordioa izan ziren aipatu ziren puntuak. Bi gai hauek izan ziren jendeak interes gehienarekin solastu zituenak.

Presaren inguruan, Kantauriko Ur Konfederazioak presaren botatzeko erran zuen, baina Udalak presaren osorik bota beharrean metro bat eta erdi jeistea eskatu zion, eta udan putzua egiteko metro eta erdi hori ixten uzteko, bainatzeko lekua izandu delakoz betidanik. Izan ere, pena izan litzateke herritarrentzat, eta zorionez, Udalaren proposamenari baiezkoa eman dio Ur Konfederazioak.

Interesa piztu zuen bertze gaia bainuetxeak herritarrei egindako eskaintza izan zen. 16 urtetik beherako gazteek eta haurrek sarrera dohainik izanen dute, eta 16 urtetik goitikoek sei eurotan izanen dute ordu bateko zirkuitua. Prezio erdian izanen dute, normalean, zirkuitu hau 12 eurotan baitago.

Txartel hau eskatze-ko herrian errolatua egon behar da. Eskatzen duenari txartela emanen zaio eta txartel horrekin batera, bainua hartzerako joatean, baliteke nortasun agiria eskatzea ziurtatzeko. Horrez gain, txartel honekin bertze masaje eta tratamenduetan ere beherapenak izanen dira, %10 eta %15 artekoak, hain zuzen. Gainera, hotel honen katean dauden bertze lekuetako hoteletan txartel honekin deskontuak izanen dira.

Bertze gai batzuk ere landu ziren, nahiz eta gai batzuei tratatzeko eta informazioa sartzeko epe luzeagoa eman.

Hasieran erran bezala, 34 lagun bildu ziren batzarrean. Eta igandea zela eta zein ordu zen kontuan hartuta, nahiko jende etorri zen.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Herritarren aldetik erantzun ona izan zuen batzarra.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Arkupeak elkarteko bazkaria Hilarionen

Arkupeak jubilatuen elkarteko Zubieta, Ituren eta Elgorriagako bazkideek bazkaria izan zuten martxoaren 4an Hilarion jatetxean. Jende puska inguratu zen eta pozik ibili ziren. Eutsi umore horri!

### Kontzertua elizan

Doneztebeko Mendi abesbatzak kantu saioa

eskainiko du elizan orziral honetan, hilak 23, 20:30ean. Modu ederra

arratsalde zoragarria pasatzeko abesbatza ospetsu hau entzunez.



KIROLA → PALA

## Frontoiak 30 urte bete dituela eta, pala txapelketa antolatu da

Apirilaren 13an hasiko da, eta herriko pestatan izanen da finala

### Markel LIZASOAIN

Aldapa frontoiak 30 urte bete dituela eta, aitzakia polita bilatu dute zenbait gaztek pala txapelketa bat prestatzeko. 16 urtetik gorako edozeinek eman dezake izena. Binaka aritzeko da, eta partidak ortziraleetan izanen dira, arratsalde-ilunabarrean.

Kategoria bakarra izanen da, eta bi finalak sanjuanetan jokatuko dituzte, herriko festetako lehen egunean. Finaleko partidaren ondotik, afaria egi-



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Hor jokatuko dituzte partidak.

nen dute plazan.

Animo, neska-mutilak, sari ederrak dau eta: urdaiazpiko bana eta bina botila ar-

do. Izena emateko, deitu zenbaki honetara: 948 615005 (Mikel). 10 euro ordaindu behar ko ditu biko bakoitzak.

Gastuetarako eta saria ordaintzen laguntzeko ibiliko da dirua. Udalak ere lagunduko du 150 euroekin.

### DONAMARIA

Sagardotegira ateraldia eginen da hilaren 31n

### Izaskun GOÑI TELLETXEA

Urtero bezala, aurten ere, sagardotegira irteera izanen da. Martxoaren 31n egin da hitzordua, eta seguru ez dela giro ederrik faltako. Eguerdi aldera aterako da autobusa plazatik, eta gero sagardotegian bazkari goxoa egiteko aukera izanen da, sagardo ausarki edanez. Eta akitzeko, arratsalde eta gauetz besta egiteko modua izanen da ostatuz ostatu. Itzulerako autobusa noiz izanen den momentuan berean erabakiko da, giroaren arabera. Lerro hauen bitartez, jendea animatzea baino ez zaigu gelditzen, primeran pasatzeko aukera izanen delako.

**Gure Haragia**  
**Nuestra Carne**

**Lizun**  
**GAZTANDEGIA**

Suibilla - Tel: 948 450 862

**BIDASOA**

WINE & SPIRITS  
RESTAURANT & CATERING  
HOTELS & APARTMENTS

T.F. 859 971 442  
BERA

948 631 218

Kanitonberr 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

**KATEA-BIKE**

José L. González Enguita

tel. 666 235 466

**TRANS TXAKAIN**

TRANSPORTADORA DE BULBARRAKU ALBUZGARRE

**ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA**

(Eraikuntza-hondakimen dokumentazioa, kudeaketa eta bilketak)

NAFARRAKO GOBERNUAKI BAIMENDUA

Otsango Int. 1 - LESAKA  
T. 948 638 052 - T. 699 930 189 - info@transbakain.com

# LEGASA

GIZARTEA → OIHANAK ERRETZEKO KANPAINA

## Hainbat menditan erreketak kontrolatuak egin dira

Erbiztegi, Atakaundi, Mokorro, Larrugain, Irapakoitz eta Baztanibarren aritu dira

### TTIPI-TTAPA

Joan den martxoaren 2an eta 3an herriko hainbat mendi erre zituzten. Hori bai, aipatu, erreketak baimenduak eta kontrolatuak izan zirela.

Suhiltzaileekin batera, herriko jendea egon zen erreketak egin ziren tokietan. Ortziralean, 15 lagun inguru bildu ziren eta larunbatean 25 bat herritar elkartu ziren. Erran bezala, mendi bat



UTZITAKO ARGAZKIA

Apirilean akituko da larreak erretzeko epea eta herrian lehenagotik ibili dira.

baino gehiago erre ziren: Erbiztegi, Atakaundi, Mokorro, Larrugain, Irapakoitzeko mendi puxka bat eta Baztanibar.

### Emakumearen Eguna

Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna zela eta, larun-

batean, hau da, martxoaren 10ean Arotxan bazkari goxo batekin ospatu zuten herriko emakumeak egun berexi hau.

### MALERREKA

Euskarazko kultur jarduerak antolatze-ko laguntzak

### TTIPI-TTAPA


Malerrekan, herrietako bestetatik kanpo antolatzen diren euskarazko kultur jarduerak diruz laguntzeko deialdia egin du Malerrekako Mankomunitateak. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 16an akituko da. Guttienez, 200 euroko laguntza banatuko da herri bakoitzean antolatzen den ekitaldi bakoitzeko. Eskaerako horretarako dagoen partida (3.000 euro) baino handiagoak badira, herri bakoitzean kultur jarduera bat lagunduko da. Malerrekaren errotuluak euskaraz jartzeko laguntza deialdia ere egin du Mankomunitateak eta abenduaren 31rako egin behar da eskaera.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Eskolako haurrek Zuhaitzaren Eguna ospatu dute

Martxoaren 9an, eskolako haurrek Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten. Goizean, 10:30 aldera, eskolatik atera eta Amaiaiko parajea zortzi zuhaitz landatu zituzten. Zuhaitzak sagar eta gereziendoak ziren. Ekintza honetan gurasoek ere parte hartu zuten eta zuhaitzak landatu eta gero, eskolara bueltatu ziren. Eguraldi bikaina zegoenez, Kukuko mahaian gosaritxo bat egin zuten. Aspaldi ez zen horrelako ekintzarik egin eta hagitik kontent gelditu ziren denak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Gas naturala

Orain dela hilabete eta erdi, gas naturala sartzeko hasi ziren herrian. Horretarako, karrika guztiak ireki eta tuboak sartzeko ari dira. Erran, karrikaz karrikaz sartzeko ari direla. Pazientzia eskatu zaie herritarrei horrelako obrek sortzen dituzten eragozpenak ahal den hobekien eramateko.

GIZARTEA → ARKUPEAK JUBILATUEN ELKARTEA

## Hainbat jarduera egiten ari dira Arkupeak-eko jubilatuak

Martxoaren 28an Olitera eginen dute irteera

### TTIPI-TTAPA

Arkupeak jubilatuena elkartean ez daude geldirik egoteko. Martxoan, erraterako, hainbat hitzaldi izan dira. Alde batetik, jubilatzen eta pentsioen gaur egungo egoera izan dute hizpide Donezteben eta bertetik, bizi-testamentua, heriotza duina eta borondate aurreratua Beran eta Elizondon. Eta

denek ere jendearen aldetik erantzun ona izan dutela aipatzekoa da.

Ikastaroak ere presatuak dituzte eta ateraldiak egin gabe ere ez dira gelditu. Martxoaren 5ean, adibidez, Xabierraldira joan ziren eta giro ederrean pasatu zuten eguna. Eta hilabete honen 28an Olitera joatekoak dira. Apirilean ere irteera gehiago egiten dituzte: Ordiziko merkatura, Andaluziara... Horrez gain, heldu den hilabetean Soinketa Eguna ere egiten dute Beran. Maiatza ere betea heldu zaie.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Doneztebe, Bera eta Elizondon egin diren solasaldiek erantzun ona izan dute, baita Xabierrera egintako ateraldiak ere.

### HEDABIDEAK

Abian da Ttipi-Ttapa, Xorroxin eta Xaloaren aldeko mus txapelketa

### TTIPI-TTAPA

Xalao Telebista, Xorroxin Irratia eta TTIPI-TTAPAren aldeko mus txapelketa hasia da. Aitzineko alean aipatu bezala, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideak dirulaguntzarik gabe utzi dituela eta, Baztan-Bidasoaldean ari diren hiru tokiko hedabide hauek diru-sarrera alternatiboak bilatzeko elkarlana abiatu berri dute eta oraingoan, mus txapelketa antolatu dute, eskualdeko elkarleen laguntzarekin. Herriz herri jokatuko diren mus txapelketa aunitz zehaztuak dira dagoeneko, eta zenbaitetan sariak ere bai. Joan den asteburuan jokatuko ziren herri batzuetako lehiak eta gainerakoak ondoko asteburuetan egiten dira. Finala, berriz, apirilaren 14an egiten da Sunbillan. Parte hartzeko, bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira eta hortik bilduko da TTIPI-TTAPA, Xorroxin eta Xaloaren aldeko dirua. Herriz herri txapelketak noiz diren jakiteko xehetasun gehiago aldizkariko 47. orrialdean aurkituko dituzue. Dena den, zerrendan ez agertu arren, baliteke Malerrekako bertze herriren batean ere txapelketa jokatzea. Animatek eta parte hartu!

HONDAKINAK → BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKAKO MANKOMUNITATEAK

## Hiri Hondakinen Mankomunitatetako martxoko zozketako sariduna agertu da

Gema Migeltorena lesakarrak jaso du saria

### TTIPI-TTAPA

Hirugarrenean bai. Baztango Udalak, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak eta Malerrekako Mankomunitateak etxez-etxe banatutako egutegiekin duten zenbakiarekin, urtarilean eta otsaillean egindako zozketetan ez zen saridunik agertu, baina

martxokoan bai. 9.558a izan zen zenbaki sariduna eta Gema Migeltorena lesakarra da zenbakiaren jabea.

Martxoaren 9an, hartu zuen saria. Eskualdeko produktuekin osatutako lotea Migel Mari Irigoien Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko presidentea eta Etxalarko alkateak eman zion.

Apirileko zenbakiarekin, berriz, Berako Zalain jatetxean bi lagunendako bazkaria zozketatuko da.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Migel Mari Irigoien Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko presidentea eman zion Gema Migeltorena lesakarrari bere saria.

## LANA

MARTXOAREN 29KO GREBA DEIALDIA → MOZIOA AZTERTZEN ARI DIRA UDALEZ UDAL

# Greba deialdiarekin bat egin dute eskualdeko 60 bat hautetsik

Martxoaren 14an agerraldia egin zuten Beran

## TTIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuak onartutako Lan Erreforma langilearen aurkako eraso bortitza delakoan, martxoaren 29ko greba deialdiari babesa eman zioten Baztan-Bidasoaldeko hainbat alkate eta zinegotzik, martxoaren 14an Berako Beralandetan egindako agerraldian.

Bilduko Mikel Ortega Baztango alkateordeak euskaraz eta Aralarko Marisol Taberna Berako alkateak gaztekeraz eman zuten egunotan udalez udal eztabaidatzen ari den mo-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Hainbat udaletan dagoeneko eztabaidatu eta onartu da mozioa

zioaren berri, baina bitalde hauetako udal ordezkariekin batera, independenteak eta Berako PNVko Isidora Agirre, modu pertsonalean agertu ziren.

Erreformak langileendako ekarriko dituen kalteak azaldu zituen Mikel Ortegak eta ondotik, gure inguruko udaletan eztabaidatzen ari den mozioa azaldu

zuten. Mozioak dioenez, «lan erreforma salatu nahi dugu enpresa kudeaketa eskasaren eta ekonomia eredu okerraren ondorioen zama guztia langileen bizkar

gainen utzi nahi dute-lako». Modu berean, sinatzaileek, «Espainiako gobernuari lan erreforma lehenbailehen indargabetzea» eskatzen diote. Atxikimendua eman dutenek «lan harremanen euskal esparrua indarrean jartzea» nahi dute, «lan merkatua arautu behar duten legeak debatzeko aukera euskal herritarroi emanen diguna». Azkenik, herritarrei dei egiten diete martxoaren 29an lan erreformaren kontra deitutako greba orokorrean parte har dezaten eta «Euskal Herriko legebiltzarkide hautetsiei kongresuan eta senatuan lan erreformaren aurkako botua ematea» eskatzen diete.

## LAB eta ELAk batera egin dute greban parte hartzeko deia

Hilaren 22an auto karabana egingen dute Arizkun eta Bera artean

## TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoaldeko ELA eta LAB sindikatuko kideek bat egin dute «Lan Erreforma basatiari» aurre egiteko martxoaren 29ko greba orokorrean parte hartzeko deia egiterakoan, martxoaren 15ean Le-

sakako Kasinoan egindako agerraldian.

ELAko Joxe Mari Arribillagak aipatu duenez, «enpresetan indar egiteko sindikatuen tresna den negoziazio kolektiboaren indarra hautsi du lan erreformak eta baldintzak gobernuak eta enpresarioek jarri dituzte». Soldatak murrizteko eskubidea ere enpresarioen esku dagoela eta kaleratzeko orduan, «lan egindako urteko 45 egun kobratu beharrean, 33



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

LAB eta ELAko kideak, martxoaren 15ean Lesakako Kasinoan egindako agerraldian.

kobratuko dira eta, 20 egun xixtrin ere izan daitezke», aipatu zuen.

Koldo Saenzek (LAB) erreforma ez dela arazo laboral hutsa ere gogoratu zuen, «arazo sozial larri baten aitzinean gaude. Lan munduko erreforma hauei, zerbitsu sozialetan ematen diren murrizketak gehitu behar zaizkie, osa-

zungintzan, irakaskuntzan, aurrekontu publikoetan... murrizketak herritarren oinarriko zerbitzuetan, baino inolaz ere murrizetak bankuen irabazietan».

Greba eguna baino lehen, martxoaren 22an, kotxe karabana bat ibiliko da Arizkongo Ordoki eta Berako Zalain industrialdeen artean. Eta

martxoaren 23an, 11:30ean lan erreformaren inguruko solasaldia eskainiko du Garbiñe Aranburu, LABeko ekintza sindikaleko arduradun nazionalak Lesakako Herriko Etxean.

Martxoaren 29an, berriz, 17:30ean manifestazioa egingen da Donezteben, ELA eta LAB sindikatuek deituta.



**TURISMOA** → ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA APIRILAREN 8AN BUKATUKO DA

# Landetxeak moldatzeko dirulaguntza deialdia zabalik

Q ziurtagiria lortu edo mantentzeko inbertsioak ere diruz lagunduko ditu Gobernuak

## TTIPI-TTAPA

Landetxeak edo turismora bideratutako establezimendu tiki eta ertainak hobetzeko eta zaharbertzetzeko edo Q ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko inbertsioei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakundeen harremanetarako kontseilariak.

Eskaerak apirilaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira Kultura, Turismo eta Erakundeen Harremanetarako



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Turismoko establezimendu tiki eta ertainek egindako inbertsioak lagunduko dira.

erregistroan, Iruñeko Navarrerria karrikan, edo, ziurtagiri digitala izanez gero, Internet bidez, Nafarroako Gobernuaren webguneko zerbitzuen katalogoan.

2011ko azaroaren 16tik 2012ko azaroaren 15era bitartean eginda-

ko inbertsioei bideratu-ko dira dirulaguntzak.

Dirulaguntzak ez dira itzuli beharko eta kalitateari bideratutako lanetan, inbertsioaren %60koa izanen da, 24.000 euroko gehiengo mugarekin. Gainerako hobetze eta zahar-

berritze lanetan inbertsioaren erdia estaliko du dirulaguntzak, 20.000 euroko mugarekin. Diruz lagundutako proiektuen guttieneko inbertsioa 4.000 eurokoa izanen da eta gehienez 40.000 eurokoa, BEZ barne.

## ARANO

15 urte San Rokeko zuzendaritzan

## TTIPI-TTAPA

San Roke elkarteko urteko bilera martxoaren 10ean egin zen 46 bazkiderekin. Nabarmentzeko moduko berria ere egon zen: orain dagoen zuzendaritzak 15 urte beteko ditu aurtengoarekin eta hurrengo urterako zuzendaritza berria osatzeko eskatu zuten. Bileran ondoren, Josebak prestatutako afarira jende asko gelditu zen.

## HORMAREN ONDORIOAK

Otsaileko hormak ondorioak utzi zituen ur sarean. Sei ur jario antzeman ziren, hauetatik bi handiak. Udalak kontratatutako Bizkai-ko enpresa batek eta herritar batzuek aurkitu zituzten isuriak, eguneko 114.000 litroko jarioa sortuz. Konponketak orain aste pare bat egin ziren.

CONSTRUCCIONES MIGUELENE

35 urteko esperientzia

Landetxeak zaharbertzetzeko dirulaguntzak, itzuli behar ez direnak

DIRULAGUNTZAK %50 ARTE

MARTXOAREN 9tik APIRILAREN 8ra

Dirulaguntzen tramitazioa

677 225 112 | IRURITA

# EZKURRA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIRIK EZ, PARRANDA BAI

## 45 lagun bildu dira Barranka ostatuan egin den afarian

Inauteririk ez da izan, baina parrandarako aukera ederki aprobe txatu dute herritarrek

### Fernando ETXEBERRIA

Bere garaian aipatu bezala, aurten ez da inauteririk ospatu gure herrian. Inauteririk ez, baina bai, ordea, festa eder bat.

Udalak antolatuta, martxoaren 3an otordu ederra egin zen Barranka ostatuan, eta Joxeanjel musikariaren doinuekin, afaltzera bil-

dutako 45 lagunak kantatzen eta dantzari ziren goizaldeko ordu txikiak bitarte.

### Lapurrak bisitan

Beste behin ere bisita egin dute lapurrek Barranka ostatura. Dagoeneko hiru aldiz ailegatu dira ostatuko atara, baina aldi honetan, balentria ez zaie nahi bezala atera.

Goizaldeko laurak aldera, jatetxeko leihoa irekitzea lortu zuten, baina lapurretako bat barranean sartzerako bizi-lagunak garaiz konturatu ziren eta aski arin bildutzea lortu zuten.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Giro ederra sortu zen martxoaren 4an Barrankan egindako afarian.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Obra berriak

Goiko karrikako bidea zabaltzeko lanei buruz lehen ere hitz egin dugu TTIPI-TTAPAN. Argazkian ikus daitekeenez, obrak nahiko aurreratuak doaz, eta Mariezkurrena enpresako teknikarien arabera, hilabete hondarrerako bukatuko dituzte.



GRUPO TANATORIO TALDEA

# IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKUNBIHERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BETELU  
DORNEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BASTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLINGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

UDALA → TURISMOA

## Udalak Aste Santurako ireki nahi du Zubimuxu aterpea

Kudeaketaz arduratuko dena nor den erabaki du

### TTIPI-TTAPA

Aldizkari hau etxetara banatzerako jakina izanen da nor arduratuko den Zubimuxu aterpearen kudeaketaz. Udalak joan den ostira-lean hartzekoa zuen erabakia, baina lerro hauek idazterakoan ezin izan zen jakin.

Udalaren asmoa, aterpea Aste Santurako irekia egotea da. Eta Udalak bere aldetik egin beharrekoa Aste Santu aurretik prest utziko duela adierazi digu Pablo Miranda alkateak, lehiaketa irabazi duenak, nahi izanez gero, irekitzeko aukera izan dezan.

### ORDENANTZA BERRIA

Herritarren partehartzea arautzeko ordenantza berri batekin lanean ere ari da Udala. Oraindik prestatzen ari dira eta honen inguruko xehetasunak jakin ahala, ematen joanen gara.

### AURREKONTUA ETA ERAGILEKIN BILERAK

Udalak martxoaren 27ko bilkuran onartuko du aurtengo aurrekontua. Eta aurrekontuaren harira, eta eragile bakoitzarekin lan irizpideak zehazteko, herri mugimenduan ari diren eragileekin bilerak egiten hasi da Udala. Eragile bakoit-

tzarekin banaka bilduko da Udala, «aurrekontuak herritarrei hurbiltzeko eta koordinazioa edo lan irizpideak markatzeko». Halaxe esan digu Pablo Miranda alkateak. Asteotan bilduko dira.

### ABELTZAINEKIN BILERA

Udalak deituta, 60 abeltzain elkartu ziren hila-bete hasieran herrilurren aprobetxamenduko ordenantza berriaz hitz egiteko.

### UEMA eguna

Aurreko legealdian hainbat saiakera egin ondok, UEMAKo zuzendaritzak aurtengo UEMA eguna Goizuetan ospatzea erabaki du eta ekainaren 9an izanen da. Festa eta aldarrikapenerako egun hau gogoan, herritarrek prestatzen hasiak dira. Otsailaren 11n eta martxoaren 7an egingadako deialdietara hamabost lagun bildu ziren, eta Alaitz Eskudero zinegotziak azaldu digunez, «oraindik egitaraua guztiz osatu gabea bada ere, egun guztian izanen dira ekintzak». Gaineratu digunez, «eguna UEMAKo hautetsien batzarrarekin hasiko da, ondok bisita gidatua egingen da herriko etxeetan, haurrentzako puzgarriak, dantzariak, ekitaldia, herri bazkaria, dantzaldia eta oraindik zehaztu gabeko ekintzak izanen dira». UEMA egunari dagokion lema oraindik adostu gabea da, baina «proposamen polit ugari» bildu omen



ARGAZKIAK: EIDER LOIARTE

### Emakumearen Eguna mahaiaren bueltan

Emakumearen Nazioarteko Eguna zela eta, kuadrilla ederra elkartu zen martxoaren 8an Umore Ona elkartearen afaltzeko. 40tik gora baziren, Juan Antonio Lekuona eta Fernando Goiak prestatutako otordu goxoa dastatzera bilduak.

dira bileretan. Hurrengo bilera apirilaren 3an izanen da, udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan.

### Formakuntza emakumeentzat

Leitza, Arano, Areso eta Goizuetako emakumezkoen eskaerak eza-gutzeko asmoz, Emakume Batzordea sortu da berriki eta horren harira, herriko emakumeak bildu eta lan mundua, formakuntza eta hauen nahi eta interesei buruz hitz egin eta informatzeko batzarra egingen da apirilaren 28an, 18:00etan. Udalak lanean nahiz langabezia dauden emakumeei hurbiltzeko deia luzatu die.

### Zuzendaritza berria Umore Onan

Martxoaren 10az geroztik, kide berriak ditu Umore Ona Elkarteak. Zuzendaritza Batzordeak. Batzordekideen erdiak aldatu dira. Bi urtez egon ondok, atera direnak Jose Jabier Etxeberria lehendakaria, Ibai Zubiri idazkaria eta Pio Zugarramurdi, Luis Elizegi,



ARGAZKIA: ZALDUA

### Beste txapel bat Iker Salaberriarentzat

Beste txapel bat jantzi du Iker Salaberriak duela gutxi. Malerrekako eskuz banakako lau t'erdiko txapelketa irabazita lortua du orain arteko azken txapela, Enaitz Telletxeari 18-4 irabazita.

Mikel Urdanpilleta eta Igor Apezetxea bokalak dira. Hauen ordeztatu direnak ondokoak dira: Unai Miranda lehendakaria, Txema Apezetxea idazkaria eta Igor Elizegi, Maite Alsua, Agustin Elizegi eta Ibon Elizegi bokalak.

Urteko ohiko batzarraren, zuzendaritzako kide berriak izendatzeaz

gain, joan den urteko kontuak eta aurtengo aurrekontua ere aurkeztu ziren eta elkartearen etxabeko lanen berri ere eman zen. Jendea auzolanean laguntzen «gustora» dabilela aipatu digu Jose Jabier Etxeberriak, «obra aurrera doa eta itxura polita hartzen ari da».

### Baiatzinikin...

Umore Ona abesbatzak Hernaniko futbol eta errugbi taldeen himnoaren grabaketan parte hartu duela? Martxoaren 10ean eta 18an Hernaniko futbol eta errugbi zelaietan zuzenean kanta-tzekoa zuen, Ereñozu eta Hernaniko koruekin.



## LEITZA

INGURUMENA → UDALA

# CO2 isurketak murrizteko konpromisoa hartu du Udalak

Udal jardueran sortzen den CO2a %20 murriztu nahi da CO2 aztarna

JM BARRIOLA

Udaleko jardueretan sortzen den CO2a %20 murrizteko konpromisoa hartu zuen Udalak martxoaren 12ko batzarrean. Oraingo gizartearen, eguneroko bizitzan energia asko kontsumitzen dugu. Energia hau sortzeko CO2 isurketak izaten dira, gure ingurugiroari kalte eginez.

Hausnarketan bat egin ondoren, Udalak 2011n sortu zuen CO2 aztarna kalkulatu du. Horretarako Lurgeroa enpresak inventario bat egin zuen Udaleko eraikin guztiak, ibilgailuak, lan-tresnak,

eta herriko argiteriko kontsumoak kontutan hartuz. IPPCko irizpideak jarraituz, bai erre-gaiak, eta bai elektrizitatea, berogailuak, hozkailuak ere... Horrela jakin da 169,34 tona CO2 sortu zituela iaz.

Orain, kalkulua egin da, Udalaren asmoa, bere jardueren ondorioz sortzen den isurketa murriztea da. Horretarako, kontsumo arduratsu bat egin nahi du, neurri zuzentzaileak hartuz, aurrezte eta efizientzia bultzatuz, energi berriztagarriak martxan jarritz. Ingu-rugiroan inbertituz, 2020-rako %20 bat CO2 aztarna jeistea da helburua.

Lantegiaren elkar-lanean sentsibilizazio kanpaina ere jarri nahi da abian. Gero, herriko etxeetan bakoitzak sor-



ARGAZKIAK: BILGUNE FEMINISTA

## «Aurreikuspen guztiak hautsi ditugu»

«Ez dugu hitzik nola sentitzen garen adierazteko. Baina sentimenduak bizi egiten dira. Ikaragarria izan da». Halaxe esan du Bilgune Feministak Emakume Abertzaleen Topaketa Feministaren inguruan. Ez da gutxiagorako. Izan ere, 600 emakume elkartu ziren martxoaren 2tik 4rako topaketetan, eta hainbat gai lantzeko aukera izan zuten. Izandako erantzuna ikusita, Bilgune Feministak eskerrak eman nahi izan dizkie 10 urte hauetan bidelagun izan diren guztiei, topaketetara etorri zirenei eta bereziki Leitzako herriari: «feministoi horrelako harrera egiteagatik». Euskal Herriko Bilgune Feministatik topaketa hauei jarri zizkien helburuak «gainditu» direla adierazi dute, eta hori «hamar urte hauetan egindako lanari esker izan dela». Horrekin batera, gaineratu dute, «inoiz baino aukera gehiago dugula eraldaketa errotik egiteko eta Euskal Herria feminista eraikitzeko». Martxoaren 29an kalean izanen direla ere jakinarazi dute. Bestalde, aipatu, martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean kontzentrazioa egin zela herrian eta 25 lagun bildu zirela.

tzen duen aztarna hori kalkulatzeko baliabideak jarri eta neurri zuzentzaileak martxan jarri ahalko ditu nahi duenak. Gero eta kalte gutxiago egingo duen gizarte eraikitzea izanen da

erronka. Honekin guztia-ekin Kiotoko protokoloa betetzeko lanari ekin zaio.

## Goi tentsioko linea

Martxo hasieran egin zen bileran, goi tentsioko linearen aurkako pla-

taforma osatu zen. Orain herrian eta inguruko taldeekin, sentsibilizazio kanpaina jarriko da martxan. Parte hartu nahi duenak atek irekiak dituzten bileretara azaldu eta laguntza eskaintzeko.

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TALDEKAKO TXAPELKETA

# Salgai daude Bardoak 2012ren finalerako sarrerak

Saioaren ondotik afaria izanen da eskoletan

JM BARRIOLA

Lehen ere aipatu dugun bezala, Bardoak 2012 Nafarroako Taldekako Bertso Txapelketako finala herriko pilotalekuan egingen da martxoaren 31n. Sailkatutako hiru talde ariko di-

ra nor baino nor, guztira bederatzi bertsolari.

Saioa 17:00etan hasi eta 20:00etarako amaituko da. Horren ondotik, triki poteoa egingen da herrian barna, eta eguna borobiltzeko, 21:30ean, herri afaria egingen da eskoletan. Bertsozale Elkartetik aurreratu dutenez, afaloste animatua izanen da, eszenatoki tiki ki bat ere izanen baita.

Finalerako bi sarrerak mota jarri dira salgai, ba-

retetik, soilik bertso-saiorako dena (15 euro) eta bestetik, saioa eta ondoren egingen den herri afarirako (30 euro). Sarrerak [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) webgunean eta Nafarroako hainbat tokitan eros daitezke: Maimur liburu-dendan, Lesakako okindegian, Elizondoko Fantxike arropa eta opari dendan, Etxarriko Xapatero ostatuan eta Iruñeko Karrikiri dendan.

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 24AN

# Dena prest dago Atekarock jaialdirako

Autobusak izanen dira Tolosaldetik eta Iruñeritik

JM BARRIOLA

Larunbat honetan, martxoak 24, ospatuko da Atekarock jaialdia. Lehengo urteko arrakasta ikusirik, jende ugari bertaratzea espero da eta pesta polita izatea. Antolatzaileek dena prest

dute, pestara hurbiltzen diren guztiak arazorik gabe giro ederrean pasatzeko. Hona egitaraua:

- 19:30ean kalejira herrian barna.
- 20:00etan ekitaldia.
- 21:00etan kiroldegian: Akatu, Governors, Kao-tiko, Zeesatek!, Tximelleta eta DJ Bull.
- 00:00etan gaztetxean: 121 krew eta Goienetxe anaiak.

Informazio gehiago: [atekarock.blogspot.com](http://atekarock.blogspot.com).

EGURALDIA → UDALAK EZ DAUDE KONFORME

# Azaroko uholdeen aurrean Gobernuaren «erantzun eskasa» salatu dute udalek

Alkateak prentsaurrekoa eskaini du beste herrietako alkateekin batera

**Juana Mari SAIZAR**

2011ko azaroaren 6an eragindako uholdeak direla eta, hainbat alkatek prentsaurrekoa eskaini zuten joan den astean. Aresoko alkatea ere bertan izan genuen, Nafarroako Gobernutik izan duten erantzun eskasa dela eta, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan gure desadostasuna adierazi zuten. Azkenean kalteak herri askotan eta oso ugariak izan dira, eta Nafarroako Gober-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gogotik egin zuen euria joan den azaroan.

nuaren dirulaguntza oso murrizta. Protesta agertuz ea zerbait gehiago lortzerik dagoen.

## Emakumearen Eguna

Beste urte batez, mar-

txoaren 8a ospatu zen herrian eta bertako hainbat emakumek afaria egin zuten Pake Toki elkartearen. Horrez gain, irteeraren bat egiteko asmotan dabilta, oraindik lekua zehazteke badago ere.

Bestalde, aipatu behar da martxoaren 9an emakumeen batzordea osatzeko bilera egin nahi zela udaletxean, baina inor agertu ez zenez, jakin nahi duenarentzat eta interesatzen zaionarentzat Bilgune Femi-

nistakoek Sastinean eskuorri motx batzuk utzi dituzte.

## Euskara Zerbitzuaz gogoeta

Euskara Zerbitzuak 20 urteko ibilbidearen gogoeta egin nahi du eskualdeko herrietan. Areson ere bere parte egin duenez, lan hori baloratzeko garaia da orain. Horretarako inkesta batzuk banatu dira zenbaiten artean eta gainera, martxoaren 26rako bilera deituta dago, 19:00etan udaletxeko gaineko solairuan. Orain arteko ibilbidearen inguruan jendeak duen ikuspegia jakin eta zer momentutan gauden ikusi nahi da. Beraz, guztiontzat irekita egongo da, eta animatu, euskara denok baikara.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

edredoi funtlak  
albornozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
mairidireak  
mantelak  
kuxinak  
toailak

Tafalla, 13 • IRUINEA  
948 230 634

**UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA**

# BAZTAN

UDALA → HERRITARREN PARTEHARTZE PROZESUA

## Udal Plan Orokorra osatzeko bilerak egiten ari dira kuartelka

Horrez gain, telefono bidez inkestak eginen zaizkie 200 lagun baino gehiagori

### TTIPI-TTAPA

Udal Plan Orokorra osatzeko prozesuan, herritarren partehartze planari ekin zaio. Eta bide horretan, kuartelka bilerak egiten hasi dira aste honetan. Gogoeta eta hausnarketa gune bat eskaintzea da helburu nagusia.

Kuartelez kuartel, honela eginen dira bilerak. Eragile sozialen foroa ere eginen da eta denak 19:00etan izanen dira:

- Martxoak 20: Baztangoizako bilera Amaiurren.
- Martxoak 21: Basaburuko bilera Berroetan.
- Martxoak 22: Erbereko bilera Iruritan.
- Martxoak 23: Lekaroz-Elbeteko bilera Lekarozen.
- Martxoak 26: Elizondokoa Arizkunenean.
- Martxoak 27: eragile sozialen foroa Arizkunenean.
- Apirilak 2: Baztangoizako bilera Amaiurren.
- Apirilak 3: Basaburuko bilera Berroetan.
- Apirilak 4: Erbereko bilera Iruritan.
- Apirilak 10: Lekaroz-Elbeteko bilera Lekarozen.
- Apirilak 11: Elizondo-

koa Arizkunenean.  
• Apirilak 13: eragile sozialen foroa Arizkunenean.

Kuartelka antolatu diren bilerekin gain, 200 inkesta baino gehiago egiteko asmoa ere badu Udalak, ahalik eta iritzi gehien biltzeko. Inkestak telefonoz eginen dira, 012-Infolocal zerbitzuaren bidez. Hori dela-eta, inkesta erantzuteko herritarren inplikazioa eta kolaborazioa eskatu eta eskertu dute Udaletik, «denon iritziak garrantzitsuak baitira Baztango herrien beharrak eta ereduak lantzeko».

Udaleko webgunean ere atal berezia izanen du ekimen honek.

Landuko diren gaiak hauek dira: lur zorua okupatzeko eredia, etxebizitzak, parkea, plaza eta karriketako egoera eta beharrak, trafikoa eta mugikortasuna, dotazioak, bertako ekonomia, alde zaharrak, ibai ondoa, industrialdeak, basoak eta lurzoru urbanizaezinak.

### Lan hitzarmena sinatu dute Benito Menni ospitalean

Elizondoko Benito Menni Ospitaleko zuzendaritzak eta ELAko bederatzi ordezkari osatzen duten langileen batzordeak 2012 eta 2015 urteen arteko lan hitzarmena sinatu dute lau hilabeteko negoziat-



ARGAZKIA: ARRANBELA

### Ernesto askatzeko eskatu dute Elizondoko karriketan

*Ernesto askatu, jazarpen politikorik ez!* lelopean manifestazioa egin zen martxoaren 3an Elizondoko karriketan. 350 bat lagun elkartu ziren, eta Joxemiel Gaztelu eta Iñaki Erro ere gogoratu ziren. Aipatu, gisa berean, Ernesto Prat Madrilen dagoen Alcala Meco espeterat lekualdatu dutela. Frantziatik Espainiaratu ondotik, Soto del Realen eduki zuten, baina hilabete hasieran Alcala Mecora eraman zuten.

zioen ondotik. Horren arabera, gaur egungo 142 lanpostuak mantenduko dira.

Horrez gain, bortz urtetan urteko 14 lan ordu gutiago egonen dira, eta 2015ean 1.712 ordu izanen dira. Produktibitatearen handitzearekin lotuko den soldata politika ere eginen da eta lana eta familia hobeki uztartzeko, hamar urteko seme-alabak zaintzeko lan orduak murrizteko eskubidea izanen dute langileek.

Gaur egun buruko eritasunak edo eritasun degeneratiboak dituzten 163 lagun artatzen dituzte Benito Menni Ospitalean eta azkeneko hiru urteotan 1.168.625 euroko inbertsioak egin dituztela adierazi du Vicente Fernandez Zurita, ospitaleko zuzendariak. Horren ondorioz, 2012ko bigarren seihilekoan 3.700 metro koadroko eremu berri bat irekiko da zentruko eri psikiatrikoak artatzeko.

Banaz bertze 142 langile ari dira Benito Menni, %90 mugarik gabeko kontratuekin eta emakumeak dira.

### 'Amaiur 2012 Haien Ametsa gurea da' ikuskizuneko sarrerak salgai

Aragoiko Erregeak Nafarroa konkistatu zuenetik 500 urte beteko dira aurten, eta horren harira, ikuskizun artistiko musikala prestatzen hasiak dira Amaiurren, Pier Paul Berzaitzen zuzendaritzapean, Amaiurko Gaztelu aitzinean eginen dena, uztailaren 20 eta 21 ean. Dagoeneko txartelak eros daitezke, [www.ticket-master.es](http://www.ticket-master.es) webgunean.

### 'Iruritan Eskuaraz'

Hitzordu garrantzitsua egina dute Iruritan larunbat honetarako, martxoak 24. *Iruritan eskuaraz* eguna antolatu dute, dantzari, bertolari, Anje Duhalde eta kontzertuekin. Xehetasunak aitzineko TTIPI-TTAPAN.

### BERTIZ

Baztan-Bidasoaldeko jatetxeen egutegia

### TTIPI-TTAPA

Bertziko Turismo Partzuergoak jatetxeen egoera zailari aurre egiteko tresna berria aurkeztu du: egun bakoitzean irekita dauden jatetxeekin egutegi bat egin du eta egun horietan ahalik eta bezero gehien lortzeko ahalegina eginen da hainbat bitartekoren bidez. Momentuz, zazpi jatetxe lotu dira ekimenera. Egutegia bi edo hiru hilabeteko eguneratuko da, eta [www.consortiobertiz.org](http://www.consortiobertiz.org) webgunean eta sare sozialeetan zintzilikatua dago.



KOMUNIKABIDEAK → XALOA TELEBISTA

# TDTko lizentzia eskatu du Xaloa Telebistak Parlamentuan

Alderdi politiko guztietako ordezkariekin bildu dira



UTZITAKO ARGAZKIA

Xaloa Telebistako langileak Nafarroako Parlamentuan izan ziren martxoaren 2an.

## TTIPI-TTAPA

Xaloa telebista Nafarroako Parlamentuan izan da. Martxoaren 2an izan ziren eta Xabier Torresek langileen izenean eta Joseba Igarabidek kultur elkarteren izenean bi idatzi irakurri zituzten, Xaloa Telebistaren egoera eta TDT lizentziaren beharra agertuz. Han zeuden alderdi politiko guztietako ordezkariak oniritzia eman, eta ahal den guztia egiteko prest agertu ziren.

Xabi Torresek telebistako sei langileen izenean aipatu zuenez, «ez gataz zuengana diru bila, lizentzia emanen digun erabaki politiko baten bila baizik, erabaki administratibo bat eskatzen dizuegu, garaiotan lanpostu hauek mantendu ahal izateko, edo gehiago sortu ahal izateko». Izan ere, 15 urtetan

eta bereziki TDTa sartu zenetik, egoera alegalean ari dira eta oraindik ez zaio konponbiderik eman. «Egoera honen mantentzeak gero eta arazo gehiago sortzen dizkigu, eta oraintxe bertan lan erregulazio batean gaude, lansari erdiarekin. Ezin daiteke betirako iraun burua uretan murgilduta; TDTan emititzeko lizentziarik ez edukitzeak, kanal analogiko zaharkituak erabiltzera kondenatzen gaitu eta enpresa gisa garatzea

ez gaitu uzten», aipatu zuen Torresek.

Joseba Igarabidek Xaloa Kultur Elkartearen izenean, lizentziak banatzerako orduan gure eskualdean mapatik kanpogelditu zela aipatu zuen eta egoera honek galera ekonomiko handiak eragin dizkiela. Horretaz, Xalorentzat lehentasun osoa du TDT lizentzia bat eskuratzeko, «proiektuak segitu ahal izateko, lanpostuak mantentzeko eta eskualdeko informazio zerbitzua eskaintzeko».

## Xabi Ibargarai palista bikain

Xabi Ibargarai Erratzuko palista Munduko buruz buruko txapelketako finalerdietako ligaxkan sartu da lehen aldiz eta ezuste ederra eman du. Horretarako hiru kanporaketa gainditu behar izan ditu, azkenekoa, lau aldiz txapel-dun izana den Gaubekaren kontrakoa.

Lehenbiziko kanporaketan Vegari irabazi zion, bigarrenean Garmari eta hirugarrenean koadroko rankingean le-



**PERTSONAIA**  
Maite ITURRE

Pello Iriarte ordezkatu duen NaBaiko zinegotzia

Joan den urtarrilaren 27an zinegotzi karguari uko egiten ziolatik jakinarazi zuen NaBa 2011ko Pello Iriarte zinegotziak, eta bere ordezkari, orain Maite Iturre Llanok hartu du zinegotzi kardia, zerrandak bigarren aurkeztu zenak. Martxoaren 14ko udalbatzarrean hartu zuen ardura berria.

hendabizikoa den eta Munduko txapel-dun lau aldiz izan den Gaubekaren kanporatu zuen ustekabea, Elizondon.

Finalerdietako ligaxkan atzelari bakarria izan den Ibargarai eta lehenbizikoa partida martxoaren 16an jokatuzkoa zuen Sestaon Urkijoren aurka.

*Okindegia* *Jatetxea*

# Uxoa



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
 JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)  
 Espezialitateak parrillan erretako jakietan  
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxo!

Ordoki Industrialdea  
 Tfnoa: 948 453 403  
 31713 ARIZKUN

**LARRALDEA**  
 eta  
**LINDOURRIENBORDA**  
 Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea  
 Txotx denboraldia irekia  
 Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolosa naztoa | LEKAROTI | 948 452123 | 626 494317  
 LINDOURRIENBORDA | Naberaz naztoa | LESAKA | 948 637212

# BAZTAN

OSPAKIZUNAK → BAZTAN ETA ULTZAMA

## Baztan errugbi taldearen besta martxoaren 31n eginen da Larraintzarren

Afarirako txartelak betiko tokietan salgai daude

### TTIPI-TTAPA

Baztan Errugbi Taldearentzat ekonomiko-ki ekitaldirik garrantzitsuena den urteroko besta, martxoaren 31n, eginen da, beti bezala, Larraintzarko frontoian.

21:30ean afaria eginen da eta aldi berean, kantu zaharrak abesteko aukera izanen da, baita bertzelako sorpresak ere. Afarirako txartelak Baztanen Futbolin, Intza eta Txokoto ostatueta erosi daitezke eta Ultzaman Iraizozko ostatuan, Orgi jate-txean eta Auzako ostatuan. 380 lagunendako afaria prestatuko da eta martxoaren 27ra arte egonen dira txartelak salgai. Afaria eta bonolaguntza 25 eurotan dago eta bonolaguntza 7 eurotan.

00:30ean Tximeleta taldearekin dantzaldia izanen da eta gero, Dj AKren txanda izanen da.

Gan den urtean bezala, Viajes Divertisen laguntzari esker, 500 euroko bonoa zozketatuko dute 02:00 aldera eta eskualdeko produktak ere bai.

Bide batez, errugbian probatzeko gonbidapena ere bidali dute Errugbi Taldekoek. Ortziralero Lekarozen elkartzen dira, 20:00etan.

### Bagordiko zabortegia

Martxoaren 16az geroztik, itxita dago Bagordiko hondakin begetalendako zabortegia. Aitzineko TTIPI-TTAParen aleetan aipatu bezala, Bagordiko hondakin begetalendako zabortegian gisa guztietako hondakinak botatzen zirela ikusita, hori erregulatu nahi izan zuen Udalak eta ixtea erabaki zuen.

Astearte honetatik, martxoak 20, aitzinera, Bagordiko zabortegira zerbait eraman behar dutenek Udaletxeko telefonora deitu beharko dute lehenagotik: 948 580006 edo 617



ARGAZKIA: NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

### Basaburuko neska-mutikoak herri kiroletan

Aurten ere ez dute hutsik egin Basaburuko gaztetxoek eta Nafarroako Herri Kirol Jolasetan parte hartzen ari dira. Hiru kategorietan, kimuetan, haurretan eta kadeetan, osatu du taldea Basaburuak, proba konbinatueta zein sokatiran. Igande honetan, Altsasun eta apirilaren 1ean Igantzin jokatuko dituzte jardunaldiak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Emakumearen Eguna gogoan

Emakumearen Nazioarteko Eguna zela eta, Elizondoko Lanbide Eskolako ikasle eta irakasle talde batek kontzentrazioa egin zuen martxoaren 8an, *Emakumearen balioa erakutsiz, baloratzen ikasi zioen pankartaren gibelean.*

609332 telefonora eta udaltzainekin harremanetan jarri zabortegia irekitzeko. Hori bai, Udalak garbi utzi nahi izan du doakoa izanen dela zerbitzua, orain arte bezala.

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!  
Berris arazi taldea

**BRANDONEA, S.L.**  
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidaxoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

**CASA OSTIZ**  
%10eko  
DESKONTUA  
gizartearen



UDALA → UDAL GOBERNUAREN ERANTZUNA

# «Titularrak bilatzea» leporatu diote Ezkerrak eta Bilduk UPNri

UPNren erranei erantzun dio Udal Gobernu Taldeak

## TTIPI-TTAPA

«UPNk egiten duen politika komunikabideetan titularrak bilatzea berterik ez da. Lehenik bilgarria prestatu eta ondolik bete. Poltroietatik, zasantietatik eta administrazio kontseiluetako dietetatik bizi direnen ohiko jokatze modua». Halaxe erantzun diete Udal Gobernuak, «nahiz eta baztandarrek orain artio ikusi dutena udaletxe ireki, parte hartzailea, hurbila eta eraginkorra dela izan den». Gaineratu dute, «titularren ondotik, estalkia betetzeko, epealdi luze bateko gisa eta garrantzi desberdineko gertakarien zerranda; helburua: aitzinetik egindako irudi faltsua hedatzea».

UPNk Udalaren funtzionamenduan «etengabeko txapuz» salatu zuen, eta horrekin «alarma sortzea» egotzi dio Udal Gobernuak, «nahiz eta baztandarrek orain artio ikusi dutena udaletxe ireki, parte hartzailea, hurbila eta eraginkorra dela izan den». Gaineratu dute, «titularren ondotik, estalkia betetzeko, epealdi luze bateko gisa eta garrantzi desberdineko gertakarien zerranda; helburua: aitzinetik egindako irudi faltsua hedatzea».

Udalbatzarren aretoan egindako agerraldiaren gaiaz ere ari da Udal Gobernuak: «udaletxe ireki batean inongo garrantzirik ez duen afera. Alta, UPNk udalbatzarrean erregearen, hau da, Francoren oinordekoaren, diru publikoaren kontura bizi den horren argazkia

egoteko egiten duen eginahalak UPNk Udalariei eta baztandarrei dien errespetua zein den argi erakusten du».

Udal idazkari posturako hizkuntz eskakizunen aferaz ere dihardu: «joan den ekaineko gaia da, dagoeneko solastatua, argitua eta konpondua dagoena, nahiz eta akaso ez diren konturatu». Horrekin batean, «Udalak oharkabe euskara hutsez igorritako jakinarazpen baten kasua» ere aipatu dute: «zeinak UPNrendako euskara errusiaren gisakoa dela jakiteko balio izan digun». UPNren ikusmolde «kolonialista» horrek euskaldunoi, Baztaneko gehiegoari «zenbaterainoko ezinikusia digun erakusten digu», erran dute Bilduk eta Ezkerrak, eta nabarmendu dute «UPNkoek euskaraz ez jakiteagatik Udalak udalbatzar eta batzordeetarako itzultzaile lanetarako duen gastu erantsia».

Batzorde informatiboen inguruan, «aldi jakin batzuetan udalbatzarren aitzinetik egitea pasa izan zaigula», onartu du Udal Gobernuak: «ezbairik gabe, hori gure akatsa da eta gure asmoa hori zuzentzea eta udal jardueran hobetzea da». Udal batzordeak murriztu direnaren inguruan, ordea, «gaia eztabaidan dagoela eta Nafarroako Administrazio Epaitegiak argitu beharko duela», adierazi dute. Bilduk eta Ezkerrak zera argitu dute: «ez-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Baztandarrek Izabako triatloian

Sasoian egon behar du gero, Izabako neguko triatloia egiteko, eta baztandar kua-drilla honek fisikoki ez dagoela batere gaizki erakutsi du taldeka proba hori eginez.

## UDAL GOBERNUAK UPN-RI

**«Aise hobe eginen lukete titular handimandien partez, Gobernuarekin duten hari zuzena Baztanen alde erabiliko balute»**

## BILDU eta EZKERRA

tabaida politikoa guttietsi gabe dietak aurreztu ditugu. Orain artio, aldika puntu bakarra zuten edo lau minutu bertzerik irauten ez zuten batzorde informatiboetarako joateagatik zinegotzi bakoitzak 100 euro kobratzen zituen. Gure proposamena batzordeetan guttieneko lan-zama segurtatzeko izan da, horrela 100 euroko ordainketa hori errentabilizatzeko». Hiri-gintzako gaiak batzorde zabal horietan ukitzen direla azaldu du Udal Gobernuak eta Aroztegia eta Elizondoko 1. Banaketa Areari buruzko informazio zehatza nahi badute prentsan beharrean bertan galdegin beharko dutela adierazi diote UPNri. Momentu honetan dozena bat batzorde ireki mar txan daudela ere azpimarratu nahi izan dute eta horietan ehun herritar inguruk parte hartzen dute-

la. Bide batez, batzorde horietan nahi duten herritarrek parte hartzen ahal dutela oroitarazi dute.

Akten kontuan, «gure borondatea gisakorik ez errepikatzea da eta, horretarako, egin beharrekoak eginen ditugu», diote Bildu eta Ezkerrak. Nolanahi ere, gogoratu dute, «lehendabiziko aldia dela Udala elebizi ari dela lanean eta horrek udal teknikari batzuek lan bikoitza suposatzen duela. Nafarroako Gobernuari aurrekontuetan aurkeztutako emendekin bidez itzulpen lanetarako laguntza eskatu diogu, baina ukatu egin digu; horrek Udalaren jardun arrunta zailtzen du».

Egindako «akatsak guregain hartzen ditugula» erran dute, baina Bildu eta Ezkerraren irudiko, «bistan da UPNk 'etengabeko txapuz' dela errateko erabili dituen argudioek ez dutela errealitatearekin bat egiten. Horrek erakusten duen bakarra UPNk herritarren alde lanean ari den udaletxe herrikoi eta ireki honen aurka duen jarrera suntsikor eta erasokorra da». Aski modu «axolagabean alarma faltsua sortzen saiatu izana» leporatu diote: «aise gehiago eta hobe eginen lukete titular handimandien partez, Gobernuarekin duten hari zuzena Baztanen alde erabiliko balute».



Bonika Iturte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
bentil@antxitiona.com • www.antxitiona.com

# BAZTAN

EKONOMIA → GREBA EGUNA

## Martxoaren 29ko greba egunean manifestazioa egingen da Elizondon

12:00etan abiatuko da BMko jarduera gunetik

### TTIPI-TTAPA

Martxoaren 29ko greba egunean manifestazioa egingen da Elizondon, bertze eredu sozial bat posible da lelopean. Hainbat eragile sozial, sindikal eta politikok egin dute deialdia eta eguerdiko 12etan abiatuko da BMko jarduera gunetik. Iruñeko manifestaldirat joan beharrean bertan gelditzeko eta parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Elizondoko deialdia Baztango eta Malekako jendeari zuzendua dago.

Horrez gain, goizetik pikete taldeak izan dira iragarri dute, aitzineko egunetan elkarretartzeak, auto-karabanak...

### Bilduren boletina

Hilero bezala, berripa-pera kaleratu du Bilduk. Bertzeak bertze, Giltxaurdi udal kirol instalazioa enpresa publikoak kudeatzearen aldeko apustuaren inguruan dihardu, baita Udal Planean herritarren parte hartzeari buruz ere. Gai hauek ere aipagai ditu:

### INGURUGIRO BATZORDEA

Hasiera batean nekazaritza, mendia eta ingurugiro batzordea bazen ere, jende aunitz zegoela ikusita, ingurugirako eta nekazaritzarako ba-

tzorde bana sortzea erabaki dela jakinarazi du.

### ALMANDOZKO HARROBIA

Almandozko harrobiaren aferaz ere ari da Bildu. Batzar Nagusian gaiaren inguruan aritzeko batzorde berezia sortu da, udal ordezkari eta herritako alkateekin. Herritarrekin, harrobiko jabeekin eta afektatuak izan daitezkeen luberrietako aprobetxamendua dutenekin bilerak egin dira azaldu du, eta herritarren baldintzen zerrenda egin eta harrobiko nagusiekin horietaz solastu direla konpromisoak erdiesteko. Orain artekoaren berri emateko batzarre informatiboa egingen dela iragarri du.

### ZABORREN BATZORDEA

Zaborren ordenantza fiskalak ekain edo uztailerako prest egonen direla aurreikusi du Bilduk. Halere, zaborren gaien «afera garrantzitsuenetako» hondakin organikoena dela dio: «Nafarroako hiri hondakinen plan integral berriak irauten artean, gai organikoaren bilketa berezitu %50-eratik %50-erataz gero konpostajerat edo liseriketa anaerobikorat bideratzeko».

Momentuz, Udalak 137 konpostagailu eskainiko ditu eta apirilera hemen egotea espero du. Elizondoko Baztan Berri auzoan konpostagailu komunitarioa ezartzeko konpromisoarekin taldea ere osatu omen

## Giltxaurdi kirolgunea kudeatzeko enpresa publikoa sortuko du Udalak



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO  
Iñigo Iturralde (Ezkerra) eta Mikel Ortega (Bildu) prentsaurreko egunean.

Elizondoko Giltxaurdi kirolgunearen kudeaketaz arduratzeko enpresa publikoa osatuko du Udalak. Halaxe jakinarazi zuten joan den asteko agerraldian Udal Gobernuak osatzen duten Ezkerra eta Bilduk. Bilduko Mikel Ortega eta Ezkerrako Iñigo Iturralde azaldu zuten, «kirolguneak Udalek ez dituztenez zuzenean kudeatzen ahal eta enpresa pribatuaren esperientzia garestia denez, herritarrei zerbitzu hobereana modu eraginkorrean emateko aukera onena eta, momentuz bakarra, enpresa publikoa sortzea da».

Bildu eta Ezkerrako zinegotzien arabera, «Nafarroako Gobernuak udal igerilekuak egiteko dirulaguntzak ematea erabaki zuelarik, kudeaketa udalek zuzenean egin ahal izatea espreski galera izan da bidez egitea bultzatuz. Geroztik ikusi ahal izan da kudeaketa eredu hori udaletxe eta herritarrendako garesti eta eskasena dela, eta gainera, UPNren ingurukoek sortutako enpresa taldeak sektorean nagusitu direla». Udal Gobernuaren irudiko, «agerian gelditu da enpresa pribatuaren bidezko kudeaketa ez dela herritarren hobe beharrez egin, baizik eta interes talde zehatz batzuen hobe beharrez». Kirolguneagatik Udalak urtero 97.781

euro gehi BEZ ordaindu dizkio 2006tik gaur artio kiroldegia kudeatu duen Masquattro enpresari. Oraingo bazkide kopuruarekin (999) ezin dela finantzatu diote zinegotziek, «arrazoizko muga batetik harago tarifak ez baitira kariatzen ahal». Gisa berean, adierazi dute «enpresa pribatu edo publiko batek kudeatu, Udalak diru ekarpena egiten jarraitu beharko duela. Baina enpresa publikoaren kasuan 'industria etekina' esku pribatuetan gelditu

### KUDEAKETA PUBLIKOAREN ALDE

«Herritarrei zerbitzu hobereana modu eraginkorrean emateko aukera onena eta, momentuz bakarra, enpresa publikoa sortzea da»

Mikel ORTEGA eta Iñigo ITURRALDE  
Bildu eta Ezkerrako zinegotziak

beharrean, publikoetan gelditzen da -2010ean 32.000 euro-, eta horrekin eta aurreikusitako berritze egokitzapenekin Udalak urtero egin beharreko ekarpena tikiagoa izan da, hau da, igerilekuaren kostua merkeagoa izan da».

Enpresa publikoa sortuta, helburu soziala «bailararen kultura, kirol gizarte eta ekonomia sustapena izan da -diote Bilduk eta Ezkerrak-, aitzineko beharrezkoa ikusten bada, bertze jardueretarako erabilien ahal izateko». Udalbatzarraren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik, hilabete eta erdiko epea izan da enpresa publiko berriaren memoriari eta estatuei ekarpenak egiteko. Tarte horretan ekarpenak biltzeko aukera izan da. Behin betiko onarpena udalbatzarrak emanen dio.

da. Esperientzia pilotu hau ongi ateraz gero, bertze bizitza-blokeetarako hedatzeko asmoa du.

### BARATZEEN EGITASMOA

40 baztandarrek eman

zuten herri lurretan baratzak egiteko Udalaren ekimenean izena, 30ek Elizondon. Lurrak eskuratzeko partikular batekin tratua itxi nahian aritzen Udala lerro hauek

idazterakoan, lurzatian 30 baratzak egiteko. Bitartean, erabilera arauak zehazteko, Aizarotz, Noain eta Donibane Lohizuneko baratzak bisitatu dituzte Udalak.



**DESKONTUAK | ZOZKETAK  
ALDIZKARIA MUSUTRUK**  
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

# TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

561. ALEKO IRABAZLEAK

\* PIRINIX, POKROYK ETA MANIMOTOTS PUZZLEA

Elkarrekin Irizabal Argitaletza | EUSKALIA

\* IRABAZAL 3 LIBURU:

1. Lurrunak Kizitu | 2. Zorrotz Mirentxu Alburakortia | LEEAKA

3. Gure mizkina | Raine Alkuzgaregi Larralde | LEEAKA

\* AQUARIUM 2 SARRERA

Mirre Irizabal Argitaletza | IRIBAK

\* ONINART JERTSEA

Esther Lasaarte Goia | IRIBAK

\* LUDITOTS MUNDUKO IPUIAK JOLASA

José Fco Irigoien Argitaletza | LEEAKA

\* LANKE IGU TA GITARRAK CDa

Luzmila Goyi Argitaletza | CONCETITE



**AQUARIUM 2 SARRERA**  
Elkarrekin Argitaletza




**2 LIBURU**  
Elkartoki Elkartea  
www.elkartoki.net

## TTIPI SASKIA



PRODUKTUAK,  
IREIN ARGITALETXEA,  
ELKAR ARGITALETXEA,  
KATXIPORRETA ARGITALETXEA,  
IRABAZAL ARGITALETXEA




**KAMISETA BAT**  
Onddo ta punta  
www.onddoepunta.com




**PUNPALAPAN CD + DVD**  
Urbintza eskola  
www.urbintza.org

## DESKONTUAK

**FANTXIKE**

948 500000 gordin gordin

**GOIKO**

948 635458 gordin gordin

**MITZURI**

948 635458 gordin gordin

**IPARLA**

948 500000 gordin gordin

**IPINGI**

948 500000 gordin gordin

# SARA

GIZARTEA → SARAKO ONDAREA ELKARTEAREN ESKUTIK

## 'Sara eta protohistoria' izeneko mintzaldia eskainiko da larunbatean

Lauburu elkarteko Jacques Blotek emanen du

**Joana GUERENDIAIN**

Saratarren eta biztanleen memoria kontuak, ikusi eta idatziak salbatzeko lanean ari den Sarako Ondarea elkarteak mintzaldia antolatu du larunbat honetarako, martxoak 24. Lauburu elkarteko Jacques Blot-ek emanen du, eta gaia *Sara eta protohistoria* da.

Lur Berri gelan egingen da arratseko zortzi eta erdietatik goiti. Saratea bortz eurokoa izanen da.

### Sara Korrika trail

Igande honetan, martxoak 25, Sara Korrika elkarteak bere traila antolatu du. Lasterketa plazatik abiatuko da eta 25 kilometroko luzera izanen du. Xehetasun gehiagorentzat joan zaitezte Sara Korrikaren web gunera: [www.sarakorrika.com](http://www.sarakorrika.com).

Edo bertzela, aldizkari-ko 41. orrialdean ere irakur dezakezue mendi lasterketaren berri.

### Pastiz salmenta

Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean goizez San Josepe eskolako burasok pastizak salduko dituzte, plaza gainean.

### Tango ikastaldia

Joan den urtarrilaren 29an Zazpiak Bat tal-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Zaldi ibilaldia

Joan den martxoaren 4an 75 zaldun hurbildu ziren turismo bulegoak antolatutako zaldi ibilaldira. Zaldunak ekipetan banatuak ziren eta ibilaldian Sarako mendiak ezagutzeko aukera ukan zuten joko eta galderen bitartez. Eguna goxoki pasatu zuten eta arratsaldeko 6etan bukatu zuten sarien ematearekin. Heldu den ibilaldia bi urteren buruan antolatuko da.

deak rock ikastaldi bat antolatu zuen eta jende multzo polit bat hurbildu zen. Esperientzia eraberritza erabaki dute eta apirilaren 1ean, igande arratsaldearekin, egingen da, baina aldi hune-

tan tangoarekin. Lur Berri gelan egingen da arratsaldeko 3etatik goiti eta izen ematea sei eurokoa izanen da.

### Kirol emaitzak

Sarako Izarrako lehen

ekipak irabazi egin du Campeten, 14-10, eta erreserbak ere bai, 45-0. Eskubaloi taldeak, berriz, 18-18 egin du Benejacq-eko taldearen kontra, aski ongi jostatu eta gero.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Gazte martxa Saratik Lesakara egingen da

Jalgi Hadi Garaipenera dinamikako kideek otsailaren 24an Sarako plazan egindako prentsaurrekoan, gazte martxa aurkeztu zuten. Apirilaren 6an Saratik abiatuko da gazte martxa eta biharamunean Lesakara ailegatuko da. Gisa berean, larunbat honetan, Jalgi Hadi Garaipenera dinamika eta 2012ko Gazte Martxa aurkeztuak izanen dira goizeko 10etatik aitzinera. Sarako gazteek martxaren xehetasunak orduan jakinaraziko dituzte.

**elika**  
Dietetikoa eta nutriçioa

- Alkuperantz dietetikoak
- Nutriçioaren pertsonalizazioa
- Dietetikoak: haurrak, emakumeak, gazteak
- Dietetikoak: haurrak, emakumeak, gazteak, haurrak, emakumeak, gazteak...
- Dietetikoak: haurrak, emakumeak, gazteak...

www.elikabera.com

**F. LANCHAS**

Akuzoaloria eta herriazaloria  
Parket eta parket flutatzaloria  
Jartzeak  
Mota gutxietaiko zolak

Tel: 948 630 755 | M: 607 406 781

ELIKAZIEN ETATIKO ERRENTZIA  
CASA DE LA MAIRIE  
BARRAZIA  
Maitzen eta W...  
SARA

# URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → BIZTANLERIA

## Urdazubin igan eta Zugarramurdin jautsi egin da azken urteetan biztanleria

Bortz urteotan 348 biztanletik 388ra igan da Urdazubi eta 226tik 211ra jautsi Zugarramurdi

la bortz urte 348 biztanle ziren, aurtan, berriz, 388. Zugarramurdin, berriz, 226 biztanleetatik 211ra jautsi gara.

Bistan da zifra hauek ez direla arras errealak, adibidez, badaude Zugarramurdin bizi direnak baina Udaleko erroldan sartuak ez direnak; eta alderantziz ere bai: kanpoan bizi direnak baina Zugarramurdin erroldatuak.

Eta biztanle aunitz edo gutti izateak zer inportantzia dauka? Ba, adibidez, dirulaguntza batzuk hartzeko horren arabera izaten da, zenbat eta jende gehiago orduan eta diru gehiago ematen dute. Edo eskoletan matrikulatu-

### Koro eta Margari

Nafarroako Gobernuak berriki argitaratu du herrietako biztanleen kopurua. Urtero jakitera ematen den datua dugu hau, eta azkeneko bortz urteetakoak kontutan harturik, gure bi herri hauetan martxa arras diferenta ikusten da.

Gora-beherekin, baina Urdazubiko biztanleria aunitz igan da: due-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### Lezeen eguna

Martxoaren 4an Lezeen Eguna ospatu zuten Euskal Herriko hainbat lezek, horien artean Zugarramurdikoak eta Urdazubikoak. Pena izan zen eguraldi txarra egin zuela, baina hala ere, Zugarramurdikoan 176 lagun sartu ziren, eta horietako 39 lagunek herriko bisita gidatua egin zuten. Bertalde, zonaldeko alojamentuei eskertzeko eguna ospatu zen lehen aldiz martxoaren 11n eta Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Sunbilla, Oiz, Etxalar eta Atarrabiko hogeitabat landetxe, kanpin eta hoteletako arduradunek parte hartu zuten. Sorginen Museoa eta lezeak kudeatzen dituen Zugarramurdiko Garapenak eskerrak eman nahi izan zizkien turismoaren alde egindako lanagatik. Gan den urtean, Museoan, lezean eta bisita berezietan Nafarroak doan hartzen zaitu kanpainako 3.600 txartel jaso ziren herrian. Eskertzeko, bisita gidatua egin zen herrian eta azkenik, Azketa jatetxean bazkaria.

ta dauden haurren kopurua ere izigarri inpor-

tantea da eskola edekita atxikitzeko. Gauza

bera mediku kontsultarako.

BIZTANLERIA	2011	2010	2009	2008	2007
Zugarramurdi	211	212	218	225	226
Urdazubi	388	361	368	380	348

## Euskaltzaindia Sarako XXIX. Idazleen Biltzarrean

### Aurkezpena:

**BERIZE PREDIKU BAIZUK**  
Egilea: Gastien Adema "Zalilub"  
Dokumental: Henri Dubau

**GAZTEAK, AISALDIA ETA TUSKARA**  
IBAR EUSKAL HERRIAN  
Hirramun Basok eta Jean-Baptiste Coqos

**XIBEROKO ANIZERTIA**  
EDO PASTORALA  
Jules Casenave-Harigle

**ONOMASTIQUE DU NORD DU**  
**PAYS BASQUE (XI-XV SIÈCLES)**  
Egilea: Eugène Goyhenche  
Pantzaritxe: Xarles Videgain






iketa - 27

[www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

# SENPERE

LABORANTZA → PARISKO AZOKA

## Herritar andana Parisen ibili da berriki laborantza saloina bisitatzen

Jende gazteari ere ainitz gustatzen zaio Parisko saloina

**Franck DOLOSOR**

Aurten ere milaka lagun ibili dira Frantziako etxalderik haundienean. Parisko laborantza saloinak 680 000 bisitari biltzen ditu urtero eta horien artean senpentera ainitz bada beti. Europako azokarik haundienean Frantziako ekoizpen eta abere ederrenak biltzen dira saltzeko edo lehiatzeko, eta horiek ikustea maite dute herritarrek. Ez da ahanzi behar laborantzak pisu handia duela oraino ere gurean eta nornahi interesa daitekela lehen sektoreari denak kontsumitzaileak garelako. Gainerat, saloineko giro paregabeaz gozatzea ere gustukoa dute ainitzek, gure laborariek, erretiroa jadanik hartu duten nekazariak eta bai gazteek ere. Halere, milaka jendeen artean beti harigarria da herritarrek ikustea erakusmahaien aitzinean edo kantuz ibiltzen ostatzuz ostatu!

Bertzalde, Saint Christophe laborantza ikastegiko akuakulturako zombait ikasle ere Pariserat joan dira saloinerat. Badira hamar urte, ikasle hauek azokarat joaten direla Frantziako ekoizle onenak eta bertze herrialdeetako tekni-

kak ezagutzerat. Amurainaz arduratzen dira Urdazuri ibaian eta preseski aurten ezagunak dituzten Akitaniako amurain bi ekoizle saritu dituzte Parisen.

### Arrantza denboraldia hasi da

Eguraldi ederra lagun, erreketako arrantza denboraldia hasi da urte guziz bezala martxoaren lehen igandearekin. Geroztik, arrantzale frango ikusten da gure erreka bazterretan eta aintziraren inguruan. Arrantzaleen elkarteak pozik dago gero eta gazte gehiago interesatzen baita arrantzaz. Gazteek gero eta argiagoa dute bazterretan eta erreka zaindu behar direla. Gainerat, *No kill-ez hil* teknikaren aldekoak dira maiz, erran nahi baita arraina bildu eta berehala libratzen dutela hil aitzin.

Arrantza ezagutu nahi dutenentzat arran-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Herritar andana ibili da Europako azokarik haundienean, Parisen.

tzale eskola dago Senperen. Ikastaldiak aintziran igande goizetan eskaintzen dituzte 9etatik eguerdira arte. Xehetasunak 05 59 54 58 24ra deituz.

### Biltegi berria herriko langileentzat

Eta orain denak lanerat! Christine Bessonart andere auzapezaren hitz horiekin bururatu da Herriko Etxeko langileen biltegi berriaren estrena joan den martxoaren 3an. Miliun bat euro gosta den eraikin berria Xabatenia bidean da, aintzirako bide nagusiaren ondoan. Arrunt molde berrian altxatu dute biltegi hau: landarez betea den teilatuarekin, plaka futbol-taikoekin, olio begeta-

## Aurtengo Herri Urratseko kanta aurkeztu dute

Elkartuz zabaldu izanen da aurtengo Herri Urratseko kanta, eta lelo horrekin bat eginez, lehendabiziko aldiz ez du euskal talde edo kantari batek egin, La Troba Kung Fú talde kataluniarrak baizik, runba kataluniarraren erreferentzia nagusienetarikoa den taldeak, alegia. Damba taldearen laguntzarekin egin dute Seaskako bestaren ahotsa izanen den kanta. Euskal Herri osoan barna aurkeztu ari dira hilabete honetan, eta maiatzaren 13an egingen den Herri Urrats bestan ere zuzenean aditzeko aukera izanen da.



larekin eta energia berri tagarriekin. Herriko langileek izanen dute

hor behar duten toki gutzia lan tresnak eta kamiunak kokatzeko.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

MONTXO OSTATU

ТАВЛКО-ДЕНДА  
АНЗАН-БОРДА - УРДАЗУБИ

Еgutem inak 10.30etik 02.30era



## SORTZEAK

- Jone Irtzoki Abezia**, Gasteizkoa, martxoaren 8an.
- Beñat Narbarte Makazaga**, Goizuetakoa, martxoaren 6an.
- Unai Iturria Zuberbiola**, Oiartzungoa, martxoaren 10ean.
- Gorka Arruebarrena Jorajoria**, Sarakoa, otsailaren 22an.
- Xanti Elizondo Uterga**, Doneztebekoa otsailaren 17an.
- Irati Agirre Uharte**, Doneztebekoa otsailaren 27an.
- Oihan Muñoa Sanjuan**, Lesakakoa, otsailaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

## HERIOTZAK

- Federico Mitxelena Telletxea**, Lesakakoa, martxoaren 1ean, 81 urte.
- Pedro Rekarte Gortari**, Erratzukoa, martxoaren 1ean, 77 urte.
- Paulino Jimenez Valdes**, Beran, martxoaren 3an, 83 urte.
- Anjel Mari Olabe Viela**, Elizondokoa, martxoaren 3an, 85 urte.
- Rosa Zubieta Sanzberro**, Etxalarkoa, martxoaren 4an, 91 urte.
- Hipolita Urroz Grajirena**, Beintza-Labaiengoa, martxoaren 4an, 83 urte.
- Felisa Otxoa Gartzia**, Leitzakoa, martxoaren 4an, 90 urte.
- Esteban Ugarte Ortiz**, Elbetekoa, martxoaren 5ean, 74 urte.
- Maria Zubikoa Telletxea**, Doneztebekoa, martxoaren 6an, 81 urte.
- Maria Josefa Zubillaga Garagorri**, Leitzakoa, martxoaren 8an, 81 urte.
- Pedro Lizasoain Oteiza**, Gaztelukoa, martxoaren 9an, 86 urte.
- Maria Jesus Gogorza Saralegi**, Leitzakoa, martxoaren 10ean, 79 urte.
- Maria Josefa Oiaregi Aizpuru**, Elizondokoa, martxoaren 12an, 90 urte.
- Valentin Iparragirre Almandoz**, Arantzakoa, martxoaren 13an, 77 urte.

## EZKONTZAK

**Jose Maria Martin Otxandorena** eta **Lurdes Argain Bergara**, Lekarozkoa eta Nabartekoa, martxoaren 2an Nabarten.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



### Juan Bautista URROZ EZKURRA

**II. URTEURRENA**  
Beran hil zen, 2010eko martxoaren 20an, 67 urte zituela

*Gogorra da onartzea  
gehiago ez zaitugula ikusiko  
baina biziz garen artean  
ez zaitugu ahaztuko.*

#### EMAZTEA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA FAMILIA

Bere urteurreneko meza martxoaren 25ean eginen da, San Esteban Elizan, 12:00etan.



### Joxe Mari JORAJURIA ARRETXEA

Elgorriaga, 1935-02-26/2012-02-25

*Oroitzan zaitudanean, atta,  
sukaldean egoten zara,  
mahaia bortzendako paratua,  
aulkian jarrita  
eta leihotik begira,  
kristala lausotzen duen hurrina kendu gabe,  
neguari begira  
eta nik badakit  
zeure begien ondoan nagoela.*

#### ZURE FAMILIA



### Juana ALDABE LARREA

**I. URTEURRENA**  
Areson, 2011ko martxoaren 20an

*Gure bihotzak betetzen zenituen  
zure pox eta alaitasunekin  
beti izango ditugu beteta  
zure oroimenarekin.*

#### ZURE FAMILIA



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Bortzirietako Eskuz Banakako Pilota Txapelketan parte hartu duten pilotarietako batzuk.

**PILOTA** → TXAPELKETAREN XI. EDIZIOA

## Zortzi kategoriatan finalak jokatu da Bortzirietako txapelketa

Hamaikagarren edizioan 101 pilotarik hartu dute parte

**TTIPI-TTAPA** | LESAKA

Bortzirietako Eskuz Banakako XI. pilota txapelketako finalak martxoaren 10ean jokatu ziren Lesakan. Guztira 101 pilotari aritu dira lehiaketa honetan zortzi kategoritan banatuta. Bortz herrietako pilotariek gain, Txarutakoak, Hondarribikoak, Oiarzungoak eta Iruñerrikoak ere aritu dira.

**Aurrebenjaminen edo ttikien mailan**, Berako Gure Txokoako bi pilotari izan ziren aurrez aurre eta Andoni Telletxeak 18-14 irabazi zion Unai Lluciari.

**Benjaminetan, B mailan** ere Berara joan zen txapela. Gure Txokoako Jon Pagola nagusitu zitzaion Lesakako Arkupeko Imanol Ugaldebereri, 18-11. **A mailan**, Baztango Txarutako Axier Bailarenak



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Benjaminen B mailako finalean, Jon Pagola eta Imanol Ugaldebereri.

18-9 irabazi zion Gure Txokoako Asier Telletxeari.

**Alebinetan, B mailan**, Etxalarko Altxatako Aritz Irazoki eta Arkupeko Iker Iriarte aritu ziren nor baino nor. Nahiko berdinduak ibili arren, 18-16 nagusitu zen Etxalarkoa. **A mailako** finalak ere ikusmina piztu zuen, Igantziko Biltokiko Enaitz Telletxeak 18-6 irabazi zion eta Gure Txokoako Mikel Eltzaurdiari. **Infantilen A mailako** fi-

nalean, Gure Txokoako Harri Maritorenak bere indarra eta eskuin kolpea nabarmendu zuen eta 18-9 irabazi zion Oiarzungo Oiarpeko Ekain Etxeberriari.

**Kadeteen B mailan**, Txarutako bi pilotari izan ziren aurrez aurre: Enaitz Antso oiztarra eta Iker Espelosin sunbildarra. Markagailuan gorabehera dexente izan zuen partidaren ondorengatik, azkenean, sunbildarra nagusitu zen, 15-18. **A mailako finalak**

ere ikusmina piztu zuen. Gure Txokoako Ander Errandonea 18-7 nagusitu zitzaion Arkupeko Jon Olaizolari.

Finalak bukatuta, sariak eman zitzaizkien partehartzaileei eta txapelak eta kopak txapeladun eta finalistei. Sari banaketan, bortz herrietako pilota eskoletako irakasleekin batera, Aina Flores eta Jose Emilio del Rio Lesakako zinegotziak eta Fernando Berasain Berako zinegotzia izan ziren.

### FLASH

#### Herri Kirol Jolasak Igantzin

Nafarroako Herri Kirol Jolasen barne, bosgarren eta azken jardunaldia jokatu da apirilaren 1ean Igantzin. 11:00etatik aitzinera, ki-muen (11-12 urte), haurren (13-14 urte) eta kadete mailako (15-16 urte) lehiak jokatu dira frontoian. Haur eta kadeteen mailetan sokatiran eta proba konbinatueta ariko dira eta kimuek proba konbinatuko txapelketa izanen dute. Eskualdeko taldeei dagokienez, Igantziko Unanu eta Abelu taldeak, Berako taldea eta Baztango Basaburu taldea ari dira.

#### Berako Mendi Maratoi Erdia

Martxoaren 15az geroztik, zabalik dago apirilaren 15ean eginen den Berako VIII. Mendi Maratoi Erdia- VI. Ibardingo Sarian izena emateko epea. Manttale Mendi Taldeak 450 dortsal paratu ditu parte hartu nahi duenarentzat. Izen ematea [www.manttale.com](http://www.manttale.com) web orriaren bitartez egin daiteke, hilaren 27a baino lehen edo partaide kopurua bete arte. Sarietarako dagokienez, lehenengo bortz sailkatuentzat banatuko dira, bai emakumeentz eta bai gizonezkoentz ere (300, 250 eta 200 euro). Ibardindik pasatzen den lehen korrikariarentzat 150 euroko saria ere izanen da eta Didier Zagok iaz ezarritako marka hobetzen duenak 300 euroko saria ere jasoko du. Azken bi urteetan egin den gaztetxoan lasterketa, ordea, ez da egiten aurten. Data eta ibilbide egokiagoaren bila dabil Manttale taldea proba antolatzeko.



MENDI LASTERKETA → AURTEN ZAZPIGARREN ALDIZ

# 25 kilometroko Sara Korrika Trail lasterkaldia igande honetan egingen da

Atekaleun da ibilbideko punturik garaiena

## TTIPI-TTAPA | SARA

Urtetik urtera, gero eta indar haundiagoa hartzen ari den Sara Korrika Trail lasterkaldia igande honetan, martxoak 25, egingen da. Parte-hartzaile kopurua izandako gorakada da proba hau son haundia hartzen ari den seinale. Izan ere, 2006an egin zen lehenbiziko aldiz, eta orduan, 200 korrikalari inguru bildu ziren; 2008an 350 ziren, 2009an eta 2010ean



ARGAZKIA: WWW.SARAKORRIKA.COM

Iban Zubieta beratarrak Sarako lasterkaldian.

530 eta joan den urtean, 630.

Larun mendiko mazaletatik iraganen den

itzuli honek 25 kilometro izanen ditu, 1.443 metroko desnibel positiboa eta 1.442 metroko

negatiboa. Punturik garaiena Atekaleun da, 728 metrora dagoena, ibilbideko 7,3 kilometroan.

Lasterkaldiaren egunean, 07:30ean hasiko dira kirolariak Sarako plazan elgartzan, eta 09:00etan emanen zaio hasiera probari. Olhaingo lepora bi oren eta erdiz heldu beharko dute parte hartzaileek eta bertzela lasterkaldia utzi egin beharko dute, antolatzaileek plazarat eramanen dituzte. Aitzinera egiten dutenen artean, 11:00 alderako irabazleak plazara helduko dira eta 13:00etan, berriz, sari banaketa eta talo jatea egingen dira (bi eurotan).

Aipatu, bertzalde, dagoeneko bukatua dagoela izena emateko epea.

MENDI LASTERKETA → AURTEN LEHENDABIZIKO ALDIZ

# la 300 lagunek egin dute Senpereko lehendabiziko traila

Ionut Zinca gizonezkoetan eta Ana Rosa emakumeetan izan dira azkarrenak

## TTIPI-TTAPA | SENPERE

Senpereko Spuc lasterketa taldeak antolatuta, martxoaren 11n egin zen Senpereko lehendabiziko traila, 21,1 kilometroko lasterketa. Eta lehendabiziko aldia izateko, 298 lagunek bu-

katu zuten Ibarrungo pilotatziatik abiatu zen lasterketa.

Ionut Zinca izan zen bizkorrena, ibilaldia osatzeko 01:39:18ko denbora behar izan zuelako, Claude Escots sailkatu zen bigarren (01:45:44) eta Martxel Bereau hirugarren (01:47:18).

Emakumeetan azkarrena, berriz, Ana Rosa Conde izan zen (01:52:46), Claire Dubes bigarrena (02:09:34) eta Maud Conbarieu hirugarrena (02:12:05).

Eskualdeko lasterkarietarako dagokienez, Sara Korrika, Senpereko SPUC eta Berako Manttaltale taldeko 27 lagunek osatu zuten ibilbidea. Horien artean bizkorrena, Sara Korrika taldeko Didier Suertegarai izan zen (23. sailkapenean), eta Phillippe Vacquie eta Fabrice Latapy taldekideak izan ziren eskualdeko hurrengoak, 28. eta 29., sailkatu ziren hurrenez hurren.

Lasterketaren ondok, bazkaria izan zen.

## SAILKAPENA

23.	D. SUERTEGARAI	01:57:14	Sara Korrika
28.	Phillippe VACQUIE	01:59:18	Sara Korrika
29.	Fabrice LATAPY	01:59:20	Sara Korrika
32.	J.L. IRATZOKI	02:00:53	Manttale
34.	Iñaki PIKABEA	02:01:19	Manttale
34.	Iban ZUBIETA	02:01:49	Manttale
38.	F. LAXALDE	02:02:35	SPUC
40.	Pascal URRUTI	02:03:26	Sara Korrika
43.	Iñaki LARRAÑAGA	02:03:48	Manttale
44.	G. PERUGORRIA	02:04:48	Manttale
51.	Stephane ARANAZ	02:07:03	SPUC
53.	Fabien EZKURRA	02:07:16	Sara Korrika
54.	Martxel ELGART	02:07:40	Sara Korrika
70.	C. ETXEGARAI	02:11:23	Sara Korrika
73.	M. HOURREGUE	02:12:12	Sara Korrika
74.	Josu UNSION	02:13:01	Manttale
90.	Angel SUBIZAR	02:18:21	Manttale
97.	J.M. GOIENETXE	02:19:07	Sara Korrika
100.	M. GOURAUD	02:19:34	Manttale
110.	Fred FATTAH	02:21:16	Sara Korrika
117.	Clement GAITTE	02:23:15	SPUC
128.	P. LARRONDE	02:23:40	Sara Korrika
144.	Ximun GARZIA	02:28:23	Sara Korrika
153.	J. IRIBARREN	02:30:37	Sara Korrika
167.	N. ETXEBERRI	02:32:15	Sara Korrika
209.	Michel LESAGE	02:40:17	Sara Korrika
218.	M. GARAT	02:41:50	Sara Korrika

## martxoak 22-apirilak 5

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Gaupasak



LARRAINTZAR | 2012.03.31

**Baztan Errugbi Taldearen aldeko gaupasa**

Urteroko ohiturari eutsiz Ultzaman egingen da Baztan Errugbi Taldearen aldeko gaupasa. Zekorra afaldu ondotik, Tximeleta taldea eta DJak izanen dira.

## Ospakizunak



IGANTZI | 2012.03.30/04-01

**Udaberriko bestak ekitaldiz beteak datoz**

Mus txapelketa, San Juan Xarrea ateraldia, UEMaren aurkezpena, herri kirol jolasak, *Bertsolari* filmaren emanaldia (argazkian) antolatu dira.

## Ospakizunak



IRURITA | 2012.03.24

**Iruritan Eskuaraz Egunean bertsoak eta musika**

Soto, Arzallus eta Iñaki Aleman bertsotan, Anje Duhalderen kantaldia, fanfarrea eta Ufestuek, Bizardunak eta Trikidantz taldeen kontzertuak izanen dira.

dantza taldeak ariko dira. Xehetasunak 12. orrian.

## LARRAINTZAR

**Baztan Rugby Taldearen gaupasa**

**Martxoaren 31n** ospatuko da. Afaria (zekorra) eta gaupasa Tximeleta taldearekin. Ondotik DJak.

**Kontzertuak**

ELIZONDO

**Oihan Vega+ Gogo's Lur aretoan**

**Martxoaren 24an** Oihan Vega + Gogo's emanaldia 01:00etan. 9 euro eta kontsumizio bat doan 03:30 arte.

ELGORRIAGA

**Mendi Abesbatza elizan**

**Martxoaren 23an** Doneztebeko Mendi Abesbatzak kontzertua eskainiko du 20:30ean elizan.

**Ekitaldiak**

DONEZTEBE

**Malerrekako ahozko ondarea**

**Martxoaren 24an** Malerrekako ahozko ondarea jasotzeko lanaren aurkezpena egingen da 18:00etan zineman.

**Bertsoak****Bardoak 2012**

LEITZA

**Martxoaren 31n** finala jokatu da 17:00etatik aurrera Amazabal pilotalekuan. Ondotik trikitipoteoa eta 21:30ean herri afaria eskoletan.

**Bertso afaria Agerran**

BERA

**Martxoaren 31n**

bertso afaria antolatu du Agerra Mendi Taldeak, 21:00etan. Afalondoan Jon Maia eta Maialen Lujanbio ariko dira bertsotan.

**Erakusketak**

BERTIZ

**Alatz Lopezen lanen erakusketa**

**Apirilaren 1etik maiatzaren 1era** *Artea erraminta bezala (El Arte como herramienta)* Alatz Lopezen artelanen erakusketa ikusgai Bertizko Natur Parkean. Apirilaren 8an, Solaris Jazz Trash taldeak kontzertua eskaini bitartean margolana bertan margotu eta zozketatuko da.

**Solasaldiak**

ELIZONDO

**Tokiko haziak eta landareak**

**Martxoaren 23an** Nekazal eremuan, tokiko haziak mantentzearen garrantzia eta landareen erabilerak Euskal Herrian solasaldia, eskainiko dute Arizkunean 20:30ean Esther Montero eta Gorka Menendezek.

SARA

**Sara eta protoistoria**

**Martxoaren 24an** Sara eta protoistoria mintzaldia eskainiko du Lauburu elkarteko Jacques Blot-ek 20:30ean

Lur Berri gelan, Sarako Ondarea elkarteak antolatuta.

**Ikastaroak**

SARA

**Tango ikastaldia**

**Apirilaren 1ean** tango ikastaldia eskainiko du Zazpiak Bat dantza taldeak 15:00etatik goiti Lur Berri gelan.

BORTZIRIAK

**Aisialdiko begiraleak**

**Apirilaren 20, 21 eta 28an** egingen da aisialdiko begiraleentzako

ikastaroa, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatua. Izenematea martxoaren 26tik apirilaren 4ra.

**Ospakizunak**

IGANTZI

**Udaberriko bestak**

**Martxoaren 30etik apirilaren 1era.** Xehetasunak 15. orrian.

IRURITA

**Iruritan Eskuaraz Eguna**

**Martxoaren 24an.** Xehetasunak 561. alean.

LEITZA

**Atekarock jaialdia**

**Martxoaren 24an.** Xehetasunak 28. orrian.

SUNBILLA

**Asteburu kulturala**

**Martxoaren 30etik apirilaren 1era.** Xehetasunak 16. orrialdean.

LESAKA

**Tantirudantza jaialdia**

**Apirilaren 1ean** Etxarlako Altxata, Getariko Gure Txeru, Astigarra-gako Astigar eta Lesakako Tantirumairu

## PROPOSAMENA

LEITZA

**Bardoak 2012 Ekimeneko finala Amazabal frontoian**

Nafarroa osoko elkarte eta ostatueta ibili ondotik, Leitza Amazabal pilotalekuan jokatu dute finala hiru taldek martxoaren 31n, 17:00etatik aurrera. Finalaren ondotik, trikitipoteoa egingen da herrian barna eta eguna borbiltzeko, 21:30ean herri afaria egingen da Leitza eskoletan. Eszenatoki ttiki bat ere izanen da, beraz, afalondo animatua espero da.



## Zinema

DONEZTEBE

### Zinema martxan

**Martxoaren 25ean** *Ice Age 3* filma euskaraz ikusgai izanen da zine-  
man 17:00etan eta *Colombiana* filma  
19:00etan. Mendaur  
eta Erreka Guraso El-  
karteeek antolatua.

### Mendi ateraldiak

BAZTAN

#### Baztango Mendigoizaleak

**Martxoaren 25ean**  
Amaiur-Araneako erre-  
ka-Mendialdea-Lizar-  
meaka-Otsondo-Goi-  
zamendi-Urrizti-Xorika-  
in-Latxipi-Gaztelue-  
Amaiur ateraldia  
(Baztango XIX. mendi  
itzuliaren zati bat) egi-  
nen da (08:00).

**Apirilaren 1ean** Urrizti-  
Luroko ateka-Antsas-  
tegi-Iruingo borda-Go-  
rospil-Lizartzu-Meatze-  
ko bizkerra-Urrizti ate-  
raldia (Baztango XIX.  
mendi itzuliaren zati  
bat) egingen da (08:00).

SUNBILLA

#### Ulibeltzak Mendi Taldea

**Martxoaren 24an** Los  
Mongesera igoko da  
Ulibeltzak Mendi Tal-  
dea. (06:00).

ZUGARRAMURDI

#### Atxuria mendi taldea

**Martxoaren 25ean**  
Berriozarko mendietar-  
rat aterako dira Atxuria  
mendi taldekoak.

LESAKA

#### Beti Gazte mendi taldea Santiago Bidean

**Martxoaren 25ean**  
Santiago Bideko Iruña-  
Gares tartea egingen du  
Beti Gaztek.

Gertaera guztiak  
ikusteko, begiratu:  
**www.ttipi.net**  
(agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua



Beste norbaiten  
zapatak

**GARAZI KAMIO**

Elkar, 2012

Leankide baten amaren hilbeilak egonezinek uzten duen gizona, giza harremanak matematika-ekua-  
zioen arabera ikusten dituen bikotea, autobusean  
bidaia luze bat egin behar duen lagun parek, alaba  
gaixoa ospitalera eraman behar izan duen ama,  
bizilagunari mandatu bitxi bat eskatzen dion agurea,  
30 urte lehenagoko ikasle garaiko pasadizoak aztoratzen  
duen gurasoa...

Era askotakoak dira Garazi Kamioren lehen liburu  
honetako ipuinetako pertsonaiak, sexuz, adinez,  
bizibidez eta kezkaz. Askotarikoak dira, halaber,  
kontakizunen tankerak. Denetan nabarmentzen da,  
ordea, gizon-emakumeenganako begirada berezi  
bat: behatzailea baina ez epaitzailea; pertsonen er-  
dipurdikeriei erreparatzen diena baina miserietan  
gozatu gabe; gure ahaleginak oro zoroak eta alfe-  
rrikakoak direla ikusi, baina horietan tematzen eta  
bai kontaktzen jarraituko dugula dakienarena ere.

### Musika



Arma Tiro punk

**ARMA TIRO PUNK**

armatiropunk@  
hotmail.com, 2012

Punk's not dead. Punka ez da hil. Horrela zioen  
Sex Pistols taldeak duela urte saila. Eta Arma  
Tiro Punk taldeko Eñaut Jauregi (Hendaia, bateria),  
Julen Robidart (Hendaia, kitarra), Hodei Hernando  
(Bera, kitarra), Kepa Txoperena (Lesaka, baxua) eta  
Andoni Zubirik (Lesaka, ahotsa) beraien kabuz argi-  
taratu berri duten zortzi kantuko diskak hori era-  
kusten du berriz ere, 1980. hamarkadako Rip, Ci-  
catriz edo Eskorbuto taldeak oroitaraziz. Punk doi-  
nu bizkorak eta punk letra zuzenak. *Arma Tiro Punk*  
kantuak taldea aurkezten du; *Herriko atxoak* kan-  
tuan, noski, herriko atsoen moral bikoitza kritika-  
tzen dute; *Superjet* kantuan entsaio lokala gorai-  
patzen da; *TT*, *Hooligans*, *Agur Jon*, *Asko!!!* eta  
*Hendaitz* kantuek osatzen dute diska. Azken hon-  
en errepikak laburbiltzen ahal du taldearen non-  
dik norakoak: *Gaur egungo errealtateak guri egi-  
ten digu min, penak alde batera utzi eta alden guztia  
egin, Sentitu, pentsatu, ekin!*

### Internet




Jalgi Hadi Garaipenera  
gazteen dinamika

**WWW.JALGIHADI  
GARAIPENERA.COM**

Jalgi Hadi Garaipenera, 2012. urtean Euskal He-  
rriko txoko ezberdinetan gazteek garatuko du-  
ten dinamika da. Aurten, Nafarroako Erresumaren  
konkistaren 500. urteurrena izanik, beraien ardura  
gisa hartu zuten Euskal Herriaren sustraiak ezagu-  
tzea, hori oinarri harturik etorkizuna eraikitzeko.  
«Jakintza orok ez badu isla praktikoa, teorizazio lan  
hutsera mugatzen garela jakitun, Jalgi Hadi Gara-  
ipenera alternatibean eraikuntzan kokatzen da». Hel-  
buru horrekin egingen dute Sara eta Lesaka lotuko  
dituen mendi ibilaldia Aste Santuko aste hona-  
rrean.

Eraikuntza lan hori ezinbestekoa ikusten dute bu-  
rujabetasuna erdiesteko bidean. Lurraldetasunetik  
haratago, zentzu zabalean ulertzen dute lortu be-  
harreko burujabetza; «egunero zapaltzen gaituen  
sistema gainditzeko norabidean, alegia».

## Nire aukera



Ana Mari BENGOTXEA  
Urdazubiko Etxelekua gasnategia

### «Lehen bizikletan ibiltzen nintzen eta orai frontenisean aritzea maite dut»

Ardiek eta gasnate-  
giko lanak ez diote  
asti handirik uzten Ur-  
dazubiko Etxelekuko  
Ana Mari Bengoetxea-  
ri. «Egia da lanbide lo-  
tua dela laborantza, bai-  
na tarte batzuk hartzen  
ditugu», aipatu digu.  
Denbora libre hori apro-  
betxatzeko, «lehen bi-  
zikletan aunitz ibiltzen  
nintzen, baina orai ez  
dut astirik egunez ibili  
behar delako eta egu-  
na nahiko okupatua dut,  
eta frontenisean aritzen  
naiz lagunekin», dio. Ira-  
kurtzea ere gustatzen  
zaio, «baina ez ditut li-  
buruak hasten erabat  
engantxatzen naizela-  
ko, beti liburura eska-  
patzen naiz eta nahia-  
go dut ez hasi». Igan-  
detan ez dute gasnarik  
egiten, baina aste oso-  
an bezala salmenta zu-  
zua eskaintzen dute  
Etxelekuan eta etxean  
egon behar dute, beraz  
asteburuko plan han-  
diegirik ezin egin. «Ama  
gelditzen bada ni eska-  
patzen naiz», aipatu di-  
gu, «baina bi egunez  
urrun ez zara gaten  
ahal». Udan oraindik ere  
lan gehiago duenez ezin  
kanpora atera, «baina  
nire lana gustuko dut».

**ETXEBIZITZAK****salgai**

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**DONEZTEBE.** Ogiberri gainean, pisua salgai. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde eta trastelekua. 36m<sup>2</sup>ko terraza bikaina, oso eguzkitsua. Deno hegoaldera. Prezio berria. ☎656 770373.

**ETXALAR.** Lizaietako paraje zaharberritzeko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

**BERA.** 34 m<sup>2</sup>ko atikoa salgai. Arrazoizko prezioan. Leihoeekin eta altuera haundikoa. ☎650 981950.

**ANZABAL****INMOBILIARIA****BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**DONEZTEBE.** Herri erdian bi pisu salgai. Sartzeko prest, egoera onean eta berogailuarekin. 96.000 euro eta 108.000 euro. ☎649 472658.

**LESKA.** Etxebizitza bifamiliarra salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

**ELIZONDO.** Maurizio Berekoetxean (eliza gibelan) pisua salgai. eguzkitsua, 2 logela eta bainugela, egongela, sukalde eta balkoi ederra. Apartzeko plaza eta trastelekua. Igogailua aparkalekutik sabairaino. ☎628 544929.

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**BERA.** Apartamentua salgai. ☎630 441315.

**DONEZTEBE.** Merkatarien Karrika 22an, Irrintzi ostatuaren ondoan, 90 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela handia, komun handia eta trastelekua. Berogailuarekin. Balkoia. 2 ate sarreran. Moldata, haritzarekin mobleztatua. Garaje plaza. 150.000 euro negoziagarriak. ☎617 792401.

**ELIZONDO.** Pisua salgai. 3 logela, sukalde, komun eta trastelekua. Mobleztatua. ☎620 778953 (13:30-14:30).

**IGANTZI.** Herri erdian etxea salgai. 4 logela, 2

komun, egongela, sukalde, portxea, igerilekua, garaje itxia, eta 300 metro koadroko terrenoa. ☎667 973563.

**ELBETE.** Etxebizitza adosatua salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, bi bainugela eta bi komun. Lorategia, garajea eta txokoa. 248.000 euro. ☎618 628222.

**BERA.** 85 m<sup>2</sup>ko pisua salgai herri erdian, berokuntza eta terrazarekin. Sukalde ekipatua. ☎699 646257.

**ETXEBIZITZAK****errentan emateko**

**IGANTZI.** Pisua errentan

emateko, 3 logela, 2 bainugela, sukalde, egongela, trastelekua eta garajearekin. Eguzkitsua eta mobleztatua. ☎620 997794.

**ETXALAR.** Etxebizitza errentan emateko. ☎948 635137.

**DONEZTEBE.** 80m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. 3 logela, trastelekua eta igogailuarekin. ☎607 890923.

**DONOSTIA.** Gros auzoan pisua errentan emateko. 3 logela eta 2 bainugela. ☎634 450747.

**ELIZONDO.** Herri erdian eta toki lasaian pisua errentan emateko. Berogailuarekin eta igogailuarekin eta guztiz mobleztatua. ☎948 637283.

rekin eta guztiz mobleztatua. ☎948 637283.

**ETXALAR.** 2 logela errentan emateko. ☎653 706614.

**DONEZTEBE.** Zazpigarutze auzoan mobleztatua pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde eta trastelekua. Igogailuarekin. ☎660 674328.

**IGANTZI.** 70m<sup>2</sup>ko pisu berria errentan emateko (500 euro) edo salgai (180.000 euro). 2 logela, bainugela, sukalde-egongela, trasteleku eta garaje handia, kalefakzioa. Oso argitsua eta zonalde lasaia. ☎670 218613.

**ELIZONDO.** Akullegi Karrikan, 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

**LEGASA.** Pisua berria eta mobleztatua errentan emateko. ☎677 089046.

**BERA.** Altzaten, pisu mobleztatua errentan emateko. ☎696 084284.

**ETXEBIZITZAK****konpartituak**

**IRUÑEA.** Buztintxuri auzoan, logela errentan emateko, neska baten zatitza. Pertsona arduratsua eta ez erretzailea. Hilabetean 250 euro + gastuak, argia, gas eta ura... ☎636 181546.

**LANA****eskariak**

Neska tituluduna ile-

**BASERRIA**DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(martxoaren 2tik 9ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 48,00 € (=)

**Zerri gizona**  
1,294 € kilo. (+0,010)

**Zerramak:**  
0,570€ Kg/bizirik. (+0,010)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,40 (=)  
**1.koa** 4,10 (=)

**2.koa** 3,86 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,46 (=)

**1.koa** 4,18 (=)

**2.koa** 4,08 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 100,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 110,00 (=)  
idixkoak 120,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,91/3,01  
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,80/6,20  
8-10 kilokoak: 4,60/4,80

apaindegi batean lan egiteko prest, edo haurrak zaintzen. ☎607 750553.

**LEITZA.** Emakume batek adinekoak zainduko lituzke, orduka. ☎661 172065.

**Neska euskaldun** batek astez ordu batzuetan lan egingen luke: adinekoak zaintzen, garbiketan... ☎666 663642.

**BERA.** Emakume euskaldunak interna moduan lan egingen luke. ☎948 631048 / 692 715608.

**Mutil euskaldunak** zerbitzari moduan lan egingen luke, esperientzia handiarekin. ☎630 946241.

**Zonaldeko emakumeak** zainketa palatiiboak egingen lituzke. ☎696104849.

**LANA**

**eskaintzak**

**DONEZTEBE.** Titi ostatuan asteburuetan sukaldan lan egiteko pertsona bat behar da. ☎948 450271.

**IBARDIN.** Benta batean asteburuetan lan egiteko pertsona bat behar da, frantsesa dakiena (lau orduz). ☎948 630709.

**ANIMALIAK**

**erosi**

**Mastin leones** arrazako zakurkumea erosi nahi da. Arra. ☎609 404229.

**ANIMALIAK**

**galdu/aurkituak**

**ETXALAR.** Sabueso

arrazako zakurra galdu da. ☎690 616106.



**Bihor gaztea** desagertu da Goizuetatik. Gaztain kolorekoa, ezkerreko belarri punta moztua eta bertan atzetik laina eta pikoa. ☎646 750974.

**ANIMALIAK**

**salgai**

Bi **ahari mutur gorri** salgai, 2 eta 6 urtekoak. ☎948 504498.

3 urteko **zaldia** salgai. ☎686 812286.

**MOTORRAK**

**salgai**

Africa Twin **motorra** salgai, oso ongi zaindua. 22.000 km. ☎649 830152.



**Nissan Terrano II**, 2.7TDI autoa salgai, 125 CV. 3 atekoa. AA, EE, aitzineko defentsa eta engantxea. 130.000 kilometro. Sus-

pensio altxatuak. Berde iluna, kanpotik eta barrenetik arrot ongi. Prezio onean. ☎617 792401.

**Land Rover Freelander** 2.0 TD4 S salgai, 112cv, 2003koa, 160.000km, diesela, 5 atekoa, egoe- ra ezin hobean. ☎666 618575.



**ZERBITZUAK**

**zurginak**

**ARANTZA**  
Zurgindegia  
Kloa guztiak, zurgin jarriak, ezaketa bururakotuz, berrantzezko gabe.  
Las Paredes, 14  
48100 BILBAO

**ZERBITZUAK**

**denetarik**

**PSIKOANALISTA**  
Euskarazko eta frantsesazko  
☎ 948 272011 (orain)  
☎ 948 580975  
Las Llanas 42-2 - ELIZKINDO

**DENETARIK**

**salerosketak**

**Rotabatore ttikia** salgai. ☎627 601000.

**AVIA** **DONEZTEBEKO**  
**GASOLINDEGIA**

Eta nola ez, gure biko zerbitzuak:  
Dga | Butanoa | Pripipanoa  
Etxe-erako gasoi-zerbitzuak | Auto-garbitzale automatikoa  
Presio bidezko garbiketa | Autoaren Garbiko garbiketa.

**CLUB AVIA TXARTELA**arekin  
%2ko deskontua gasoi eta gasolinan  
eta %5ko deskontua dendan.

www.clubavia.es  
Las E. 49 • DONEZTEBE | 948 451 070 | www.clubavia.es

**ORONoz.** Egurra xehetua salgai. Paga eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.

**Su egurra** salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

**Pago egurra lotetan** salgai. ☎659 867287 / 699 461394.

**Txerria hiltzeko kajoia eta bankoa** salgai. Etxean 2 lagun artean, lasai ederrean hilko duzu txerria. Deitu eta etorri ikustera. Prezioa: 475 euro. ☎608 440628/660 240779.



**DONEZTEBE.** 12 aulki rustiko salgai. Tornea-

**GANIX**  
7 948 62 06 69

tuak. Gaztain zurekin eginak. Telletxea altzaridendan daude ikusgai, nahiz eta partikularrak izan. ☎646 799828.

**Ehizako eskopeta** paraleloa salgai, JZ markakoa, kanporatzaileekin. 400 euro negoziagarri. ☎619 283278.

**DENETARIK**

**galdu/aurkituak**

**BERA.** iPod bat galdu dut Toki Onako aparkalekuan. Norbaitek aurkitzen badu, deitu faborez. Eskertuko da. ☎948 450875.

**IKAS EZAZU FRANTSESA BERAN**

**futur@lexlarqué**

**HELOUAK - NERABEAK**

- Malla guztiak
- Banakako klaseak | Talde klaseak
- Enpresak: frantses komertziala | teknika | elkarrizketak
- Hiztegi profesionala: merkataritza | ostalaritza
- C.V. eta motibazio gutunak frantsesez
- Ordutegi maigutasuna: goizez | arratsaldez | gauz

**INFORMATU ZAITEZ: 948 62.52.10**

Laneri frantsesa "Alliance Française" Huelandea D.A.F. C2 - San Eusebio, 71 | BERA | 948.62.52.10 | alexlarque@lexlarque.es

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez




**IRENE ZELAIETAK** urteak bete ditu martxoaren 5an. Zorionak eta muxuak zure familiaren partetik.



**OIHAN BARABAR LOIARRE** leizarrak urteak bete ditu martxoaren 18an. Gure pototoxori zorionak bigarren urtebetetzean. Leitza eta Goi-zuetako familia.



Zugarramurdiko **MAIALEN ETXABE OIHAGARAYK** 8 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak familiaren partetik.



**UXUE SANTESTEBAN OTXANDORENA** zubietarrak 5 urte bete ditu martxoaren 13an. Aunitz urtez! Zubietako familia, bereziki Naroa, Garazi, Iker eta Ekaitz.



**AINARA AMOROS** aranzarrak urteak beteko ditu martxoaren 17an. Muxu haundi bat gure bihurriari familia guztiaren partetik.



Lesakako **ARITZ ARANBERRI GOIAK** 6 urte bete ditu martxoaren 17an. Zorionak eta muxu haundi-haundi bat.



**ARITZ ARANBERRI GOIAK** 6 urte bete ditu martxoaren 17an. Muxu haundi bat gure bihurriari familia guztiaren partetik.



Elizondoko **GARAZI SAROBE SANSIÑENAK** 9 urte bete ditu martxoaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik eta bereziki Janireren partetik.



Aunitz urtez **AINARA!** Hemen ez egon arren, ze uste zenuen atzenduko gine-la? Ez, ez! Ongi pasa eguna, konpainia ederra duzu ondoan eta!



Pixka bat berandu bada ere, aunitz urtez **AITOR!** Eguna familia giro ederrean ospatuko zenuela ez dugu dudarik!



Aunitz urtez **JOXEMA!** Berandua gabiltza, baina ez ginen atzendu e! Halako gosari goxoarekin nola atzendu zure urtebetetze eguna zela?



Zorionak Doneztebeko **NAHIA** eta **LUIS MARI BELARRARI** martxoaren 26an eta 31n urteak beteko dituztelako. Zorionak Doneztebe eta Ezkurrako familia eta bereziki Oierren partetik. Muxu haundi bat.



**IKER ITURBURUA JAURENA** eta **ENAITZ BIKONDO JAURENA** erratzuarrek martxoaren 11n eta 18an 9 eta 3 urte bete dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Naroa eta Arizen partetik muxuak.



Detroiten bizi den **MADDALEN KLOP FERNANDEZ** lesakarrak 3 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak eta muxu pila bat, tiki, Lesakako aitaxi-amaxi eta osaba-izeben partetik.



Lakuntzako **LIDE SAN SEBASTIAN ARRAIZAK** 5 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak eta muxu pila-pila familia guztiaren partetik. Segi alai-alai Mari Kalanbrekin dantzatzen!



**JULEN LUJANBIO ENETERREAGAK** urtea egin du martxoaren 15ean. Zorionak eta muxuak denen partetik



Aurtizko **EKIÑEK** apirilaren 2an 14 urte beteko ditu. Muxu haundi bat familia osoaren partetik eta bereziki iloba Leianeren partetik. Berendu goxo-goxoa prestatu. Zorionak izeba!



Leitzako **EGOI BIDART ZABALETAK** 3 urte bete ditu martxoaren 16an. Zorionak txikito eta muxu asko etxekoan partetik!



Gazteluko **MIKEL TELLETXEA SARRATEA** gure mutiko tikiak 5 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik, bereziki Josebaren partetik.



Zubietako **JULEN SANTESTEBAN BENDIROK** 10 urte bete ditu martxoaren 12an. Zorionak eta aunitz urtez familiaren partetik eta bereziki Karnele eta Endikaren partetik. Aupa joaldun!



Etxalarko **JULENE** eta **JOSEBA DANBORIENA** osaba-ilobak martxoaren 19an urteak bete dituzte. Zorionak eta aunitz urtez! Bi muxu haundi etxeko tikienari.

**ttipi txartela harpidetza baino merkeagoa da**

**ttipi txartela**

+ ttipi-ttapa aldirikara doan  
39. denetan deskontuak  
hamabostero zozketa zuzenak

**40euro**  
**10euro**  
**30euro**

TTIPI-TTAPAren urteko kosta 39€ baino gutxiago da. TTIPI TXARTELA duteko, 39€ko pagatuko dute urtearen azkenean. Errentaren Aldarrikaren 11. lekuaren 11. lekuaren bitartean.

TTIPI-TTAPAren urteko kosta 39€ baino gutxiago da. TTIPI TXARTELA duteko, 39€ko pagatuko dute urtearen azkenean. Errentaren Aldarrikaren 11. lekuaren 11. lekuaren bitartean.

# Xorroxin Xaloa eta ttipi-ttapa

REN ALDEKO

*mus mus mus*



BAZTAN	tokia	eguna	ordua	saria
ALMANDOZ	Axerbuolo Elkarte	17	20:00	
AMAIUR	Gaztelu Elkarte	24	19:00	
ARIZKUN	Elkartasuna Elkarte	24	18:00	
ARRAIOZ	Aiziti Elkarte	17		1. saria: Txapelketa 2. saria: Gasap
AZPILKUETA	Hariarte Elkarte			
BERROETA	Gure Ametsa Elkarte	18	17:30	
ELIZONDO	Fantarrak	31	18:00	
ELIZONDO	Ertalegia			
ERRATZU	Etxebertzeko Elkarte	17	18:30	1. saria: Txapelketa
IRURITA	Gure Kaioa Elkarte	30	20:30	
LEKAROZ	Elkar-Txoko Elkarte	31	19:00	
ORONOZ	Gaztelunen Elkarte	17	20:00	
ZIGA	Asteburu Elkarte	30	21:00	
<b>APIRILA</b>				
ANIZ	Mendiarte Elkarte	6		
<b>BOHRTZIRIAK</b>				
<b>MARTXOA</b>				
ARANTZA	Ekaitza Elkarte	30		
BERA	Gure Txokoa Elkarte	24	22:00	1. saria: Zuzen jatekoan 2 alfer 2. saria: Zubikoan jatekoan 2 alfer 3. saria: Gazte eta 2 botli ardo
ETXALAR	Elutsa Ostalua	24	18:00	1. saria: Mari eder Elutsa Ostalua 2. saria: 2 botli ardo
IGANTZI	Bihoki Elkarte	30	22:00	1. saria: Txampene eta Haragia 2. saria: Ardoa eta Haragia
LESAKA	Arrano Elkarte	23	23:00	1. saria: 4 lagunetarako alfer Ararot 2. saria: Entrekota eta supardoi 3. saria: Bira botli ardo
<b>MAIHEKA</b>				
DONAMARIA	Donamariko Ostalua	23	22:00	
ITUREN	Iturongo Ostalua	31		
SUNBILLA	Ulibeltzak Elkarte	30	22:00	1. saria: 2 alfer Arditzen jatekoan 2. saria: 2 alfer Iturburu ostaluan
<b>XARETA ALDEA</b>				
URDAZUBI	Gauñara Elkarte	31	21:30	
ZUGARRAMURDI	Akelarre Elkarte	24		



finala **APIRILAREN 14** an  
SUNBILLAKO Ulibeltzak elkartean

MARTXOAK  
24

# OIHAN VEGA DJ + GOGOS

01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

MARTXOAK  
31

# LURDJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK  
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

APIRILAK  
7

# LURDJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK  
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

APIRILAK  
14

# TRIKIDANTZ

00:30 - 9€

APIRILAK  
21

# INGO AL DEU

01:00 - 9€

APIRILAK  
28

# LURDJOTAK

01:00 - 02:00 DOHAINIK  
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

 Lur

[www.lurizondak.com](http://www.lurizondak.com)



garagardotegia

Ostiral, larunbata eta jaieguneko bezperetan irekia  
ERRESERBAK, TEL. 948581863